



ERREPORTAJEA → 3-5

Bera herriaren lehena eta oraina

Beraren eta beratarren milaka eta milaka argazki eta daturen artxiboa osatu dute Rosa eta Totonon Errandonea Kerejeta Berako anai-arrebek eta oraindik ere artxibo hori hornitzen segitzen dute oraingo kontuekin. Bilketa lan horri esker, Berako garai bateko

ohitura aunitz ikasi dutela adierazi diote TTIPI-TTAPAri. Bildu ez ezik, utzi ere gustura egiten dute materiala. Argazki eta datuak euren web orrian zintzilikatzen dituzte edozeinek har ditzan eta eskura ere ematen dituzte.

‘(H)aizu!’ lelopean maiatzaren 14an ospatuko dute Senperen Herri Urrats besta

Ekainaren 18ra begira

Gure Esku Dagok bultzatuta, eskualdeko bederatzi herritan herri-galdeketa eginen dituzte ekainaren 18an. Eta hori behar bezala atera dadin, burubelarri lanean ari dira Bortzirietako Eman Bortzekoa eta Mendialdeko Gure Esku Dago elkarteak. Horren inguruan mintzatu da TTIPI-TTAPA Patxi Castillo Graziarena beratarrarekin eta Alaitz Eskudero Bergara goizuetarrarekin. Biek ere parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei. → 24-25



DONEZTEBE → 17

Udaberriko Feria eginen dute maiatzaren 5ean

Ahaztu lehiaketaz gain, azia erakusketa antolatuta dute eta Maierrekako eskulangi-lek beraien lanak ere aterako dituzte.

ZOKKETAK

→ 48



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi **info@ttipi.eus**
helbidera.



berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonon edo www.berakoagenda.eus

ARGAZKI RALLYA
6 / LARUNBATA:
ARGAZKI RALLYA
16:00-18:30 Ricardo Baroja eskola publikoan
Adina: LH 2-6ko ikasleak **Gaia:** Natura
 Taldeak lau lagunez osatuak izanen dira.
1-2 / EKAINA:
ERAKUSKETA
17:00-19:00 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Ricardo Baroja eskola Gurea Eskola

12 / ORTZIRALEA
"LIBURU SENDALARIA"
 PROIEKTUA (Tolerantzia eta berdintasunaren inguruan)
18:00 Liburutegian
 Antolatzailea: Gaija Morera

13 / LARUNBATA
MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN PRODUKTUEN MERKATUA
10:00-13:30
 Ricardo Baroja eskola

19 / ORTZIRALEA
BERTSOLARITZA XXX. BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETA. Azken eguna lehiaketan parte hartzeko

21 / IGANDEA
KIROLA BERAÑO MENDI ITZULIA
 Antolatzailea: Agerra Mendi Taldea

27 / LARUNBATA
KONTZERTUA KARRANTZAKO ABESBATZA
20:00 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Berako Abesbatza

ISIDORO FAGOAGA, BADA TENOREA!
ERAKUSKETA
 Maiatzaren 21era arte irekia. Berako kultur etxean
 Ortzegunetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara
 Igandetan, 11:30etik 13:30era

06 / LARUNBATA
OMENALDI-EKITALDIA
12:00 Illeketako Agramontea etxean
 Berako Banda, Berako Abesbatza eta Gure Txokoako dantzariak

19 / ORTZIRALEA
SOLASALDIA WAGNER AUZIAZ (Hedoi Etxarte)
19:00 Beralandetan
 Antolatzailea: Isidoro Fagoaga lagunak taldea

MUSIKA ESKOLAKO EKITALDIAK
15 / ASTELEHENA:
 GITARRA ENTZUNALDIA
16 / ASTEARTEA:
 HAIZE-INSTRUMENTUKO ENTZUNALDIA
19 / ORTZIRALEA:
 TRIKITIXA/AKORDEOI ENTZUNALDIA
22 / ASTELEHENA:
 TXISTU ENTZUNALDIA
23 / ASTEARTEA:
 PIANO ENTZUNALDIA
29 / ASTELEHENA:
 PERKUSIO ENTZUNALDIA
30 / ASTEARTEA:
 BIOLIN ENTZUNALDIA
 ENTZUNALDI GUZTIAK
18:00 Musika eskola
 Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

MUGAZ GAIN JAIALDIA
11-12 / ORTZEGUNA-ORTZIRALEA:
 DBH
18-19 / ORTZEGUNA-ORTZIRALEA:
 LH
 Kultur Etxean

	🗓️	🕒	📍
Erakusketaren inaugurazioa Inauguración de la exposición	Apirilak 21, ortziralea 21 de abril, viernes	18:00	Kultur etxea
Karnaba otxotea	Apirilak 21, ortziralea 21 de abril, viernes	19:30	Kultur etxea
Hitzaldia Conferencia "Isidoro Fagoaga eta Gernikako bonbardaketa", German Ereña	Apirilak 28, ortziralea 28 de abril, viernes	19:00	Beralandeta
Omenaldia Homenaje Berako abesbatza, Berako banda, Gure Txokoako dantzariak	Maiatzak 6, larunbata 6 de mayo, sábado	12:30	Illeketua (Agramontea)
Hitzaldia Conferencia "Wagner gaur: musikaren inmanentzia", Hedoi Etxarte	Maiatzak 19, ortziralea 19 de mayo, viernes	19:00	Beralandeta
Mahai-ingurua Mesa redonda "Isidoro hurbiletik"	Maiatzak 26, ortziralea 26 de mayo, viernes	19:00	Jamotenea (Gure Txokoa elkarte)
Ginkana: Isidoro Fagoaga ezagutzen	Maiatzak 30, asteartea 30 de mayo, martes	15:00	Kultur etxea
Antzerki-kontzertua Concierto teatralizado "Isidororen bidaia", Berako Musika Eskola	Ekainak 9, ortziralea 9 de junio, viernes	22:00	Herriko Etxeko plaza (eguraldi txarrarekin Alzateko frontoian)




Isidoro Fagoaga

BADA TENOREA!

Ifagoaga







UTZITAKO ARGAZKIA

Ezkontza bateko gonbidatuak.

GIZARTEA → ARTXIBOA OSATZEN

Bera herriaren historia letra xehearekin

Berako eta beratarren argazki eta datuen artxi-
boa egin dute Rosa eta Totono Errandoneak

Bera herriarekin zerikusia duten
toki, jende eta ekitaldien argazkie-
kin eta datuekin artxibo zabala
osatu dute anai-arrebek. Baina

oraindik ere zabaltzen ari dira artxi-
boa, gaur egungo kontuekin. Pozik
egiten dute lana, eta gainera, kon-
tent konpartitzen dute materiala.

G. PIKABEA

Maitasun haundiz, Be-
ra herriarekin benetako
altxorra sortu dute Rosa
eta Totono Errandonea
Kerejeta anai-arrebek. Ur-
teetako lanari esker, Be-
rako eta beratarren mila-
ka eta milaka argazki eta
datuen artxiboa osatu
dute. Oraingo eta aspal-
diko kontuak bilduak di-
tuzte, batzuk hagitz as-
paldikoak. Neurtezina da
egin duten lana, eta egi-

ten ari direna, baina dio-
tenez, «denbora libreba-
dugu eta gustatzen zai-
gu. Gauzak gustatzen
zaizkizulako egin behar
dira, bertze ez dira on-
gi ateratzen». Liburu-
etan ere ikus daiteke euren la-
na. 2009an Noticias tal-
deak *Bera instantes de
una villa* liburua argitara-
tu zuen anai-arreben ar-
gazki eta datuekin. 2011n,
berri, Berako baserri
guztien argazkiak bilduz

*Bera, baserri-baserriate-
ra zuten Rosak eta Toto-
nok.*

Argazkiak dira Rosare-
nak eta egunkarietako za-
tiak eta Interneteko be-
rriak Totonorenak. 1977-
an hasi zen Totono artxi-
boa osatzen: «Berako
emakume batek galtzer-
di batean txanpon ba-
tzuk eta postalak eman
zizkidan. Gorde egin ni-
tuen eta horren ondotik,
1977an egunkarietan Be-




DENENTZAT

«Gure artxiboa
gainerakoentzat
ere bada, mate-
rialak konpartitu
nahi dugu»

Totono ERRANDONEA
Berako historiazalea

rako herriarekin zerikusia
zuten berri guztien zatiak
biltzen hasi nintzen». De-
netariko egunkari zatiak
ditu: «Pensamiento Nava-
rro, Arriba España, Egin,
Diario den Navarra, Nava-
rra Hoy, Diario de Notici-
as, Diario Vasco... Edo
Ttapi-Ttapa ere bai». Be-
ra-



ARGAZKIEN BALIOA

«Argazki zahar
bat oparitzea
egiten ahal
didaten oparirik
haundiena da»

Rosa ERRANDONEA
Berako historiazalea

ko kirol artxiboa ere egina
du, eta barojatarren hain-
bat informazio albume-
tan jasoa ere bai.

Datu zaharragoekin
ere lanean ari da Totono.
Interneten ageri diren eta
1977 baino lehenagoko-
ak diren berriak biltzen
ditu gaur egun: «Interne-

ten Berari buruz ateratzen dena gordetzen hasi nintzen eta pixkanaka-pixkanaka gibelera eginez, 1800. urtera ailegatu naiz. 1300. urteko kontuak ere baditugu». Hone-larikasi du, adibidez, «Irene Borboikoa estatu espainiarretik kanporatu zutenean Beratik pasatu zela edo ETArekin lehen bahiketaren Beratik pasatu zirela...».

Rosa beranduago hasi zen argazkiak ateratzen, 90. hamarkadaren hasieran. «Gure amari konpainia egin behar izaten genion, eta denbora horretarako egiteko zer-bait behar genuen. Anaia amarekin gelditzen zenean, mendira joaten hasi nintzen eta egun batean, Morkotsenborda base-riari begira nengoela, goitik argazki polit bat ikusi eta atera egin nion. Ateratzen nintzen bakoitzean baserri argazkiak ateratzea pentsatu nuen eta horrelaxe hasi nintzen».

Baserriz-baserri zebilela, bertze urrats bat eman zuen: «Balkezenea baserrian argazki zahar bat ateratu zidaten eta kopia egiteko utzi zidaten». Orduan pentsatu omen zuen argazki zaharrak biltzea. Eta aitortu digunez, «argazki zahar bat oparitzea egiten ahal didaten oparirik haundiena da».

Halako zaletasuna familiarengandik etor dakielako uste dute bi anai-arrebek: «gure gurasoek Foruen Plazan ostatua eta denda zuten. Attak *El periodico* izeneko pizarra bat ere bazuen eta herriko berri garrantzitsuenak argitaratzen zituen. Argazkilariek Berako argazkiak ateratzen zituztenean, dendan uzten zituzten jendeak eska zitzen, eta saldu gabe gelditzen zirenean, attari pena ematen ziolako edo, haietako aunitz beretzat gelditzen zituen. Totono argazki horiekin artxiboak egiten hasi zen».



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Rosa eta Totono Errandonea anai-arrebak euren artxibo handia duten gelan.

ARGAZKI ZAHARRAK ETA BERRIAK

Egindako bilketa lana haundia da. «Ezin dugu kalkulatu zenbat argazki ditugun», dio Rosak: «daukagun datu bakarra Lurraren Egunean ateratu ditugun argazkiak da». Izan ere, 1995az geroztik urtero etxean dituzten argazki zaharrekin erakusketak antolatzen dute Lurraren Egunean, eta urte hauetan, «3.360 argazki paratu ditugu erakusgai, eta horietatik 3.250 edo gehiago errepikatu gabeak dira».

Rosaren hitzetan, argazki horiek guztiak «argazki dokumentalak dira,

DATUAK

3.360

ARGAZKI
paratu dituzte ikusgai
1995az geroztik Lurraren
Eguneko erakusketetan.

GUSTURA

«Jendea bere
arbasoen argazki-
ak eman ahal izate-
a lan polita da»

Rosa eta Totono
ERRANDONEA

eta ez artistikoak». Dokumentalak eta dokumentatuak. Izan ere, argazki bakoitzak bere oina du, bertzeak bertze, nor kontatzen den, nor ageri diren eta baserriaren eta familiaren informazioa azalduz.

Baina Berako argazki berriak ere milaka eta milaka dituzte. «Etxean baldin bagaude herrian dauken ekitaldi guztietara joaten saiatzen gara», aitortu digu Rosak. Gainera, txukun-txukun, atalka karpetetan paratuak dituzte: argazki zaharrak paperean eta euskarri digitalean antolatuak eta berriak digitalki. Rosak

azaldu digunez, «2006an, kamara digitala erosi arte paperean errebelatzen genituen, eta negatiboak ere gordeak ditugu. Baina 2006az geroztik digitalki artxibatzen ditugu. Milaka direlako eta ezinezkoa delako denak errebelatzea».

Berako auzoak, baserriak, karrikak, bordak, ospakizunak (inauteriak, bestak, Eguberriak...), kultur ekitaldiak, pertsonaiak, Bidasoa ibaiak, kontrabandoa, dantzariak, musika, eliza eta kaperak, kirola, familiak, ezkontzak, jaunartzeak, postalak, Berako zineko kartelak, paisaiak... Horrelaxe, sailkatuak dituzte argazkiak. Rosak onartu digunez, «argazki horietako aunitz karpeta bat baino gehiagotan daude», eta aldi berean uste du «Berako argazki zahar gehiago biltzea zaila» dela.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Argazki zahar batzuk azoketan erosi omen dituzte, baina gehiago omen dira jendeak utzitakoak. Esker oneko hitzak dituzte haien zat: «jendeak aunitz kolaboratzen du, eta eskerrak. Bertze-laxe, ezin izan genukeen deus ere egin», dio Totono. Baina hartu bezala, utzi ere gustura egiten dituzte. Ez dira gutti euren etxetik eskan pasatu di-

ARGAZKIEI BEGIRA IKASIZ

«Argazkiei esker gauza kuriosoak jakin ditugu»

Argazkiei esker aunitz ikasi dutela agerikoa da: «argazkiak salatariak dira eta testigantza aunitz biltzen dituzte», azadu digu Rosak. Irudiei erreparatu garai bateko ohitura aunitzen berri jakin dute. Totono batzuk aipatu dizkigu: «gaur egun Legia karrikan dagoen Fermin Legiaren estatua, Berako bidegurutzean egon zen, semaforoa dagoen tokian, eta harat aunitz joaten ziren argazkiak ateratzera». Bertze kasu bat ere kontatu digu: «1939an, Gerra Zibila bukatu zenean, nobillada bat egin zuten Altxateko plazan eguzki-arranoaren ikur eta guzti». Rosak gehiago gaineratu ditu: «ezkontzetan apezka ezkongaien erdian jartzen zen, elizatik ere bien erdian ateratzen zen eta tartako lehenbiziko zatia beretzat izaten zen. Eta emakumeak erditu ondotik, elizan purifikatu bi-

tartean ezin zuen jendaurrea ateratu». Ibardingo lehenbiziko kantina egurrezkoa zela eta emakumezko batek ireki zuela ere kontatu digu: «Rita Esteberenak ireki zuen, baina Goriarekin ezkondu zenean, haren izena hartu zuen bentak». Bertze ohitura bat ere azaldu digu Rosak. Baserri auzoan norbait hiltzen zenean, eliz-bideetatik jeisten ziren herrira hiletal-elizkizunera, eta halakoetan, «gurutzea eramaten zuena baserritik eliz aldera begira jarrita, eskuinean zegoen lehenbiziko etxeko bizilaguna izaten omen zen». Gehiago ere bai: «hil-kutxa auzoko gizonezko ezkongabeek eramaten zuten eta emakumezkoak azkenak joaten ziren». Halako kontu aunitz dakizkitez eta diotenez: «argazkiari zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta gauza gehiago ateratzen dira».

renak: «arbasoen berri jasotzeko etorri izan dira aunitz, eta garai batean, eskolako lanak egiteko informazio bila ere etortzen ziren neska-mutikok», dio Rosak. Eta horrela gustura, «uzteak poztasun haundia» ematen die la aipatu digute. Totonorri «gainerakoek ez aprobetxatzeko materiala edukitzea tontakeria» iruditzen zaio: «hemen dagoenak gainerakoentzat ere balio du, zerbait baldin baduzu konpartitzeko izan dadila». Are gehiago, «informazioa zenbat eta dibertsifikatua goa izan, orduan eta hobeki babestua egonen da», dio Rosak.

INTERNETEN ERE BAI

Euren borondatearen seinale, euren argazkiak, berriak eta bertze kontuak euren web orrian zintzilikatzen dituzte edozeinen eskura, euskaraz eta gaztelaniaz, *beragure herria.com* atarian.

Egiten duten lanaren «bertze alde polita jendeak ez zituen familiako argazkiak gurieskerlortu izana dela» erran digu Rosak: «norbere arbasoen argazkiak eman ahal izatea lan polita da. Garai batean, argazkiak batez ere aberatsen kontuak ziren eta argazki batek oroitzapen aunitz pizten ditu».

Pozik egiten dute lana, baina herri guztietan horrelako artxiboa edukitzea beharko luketela uste dute: «guk zortea dugu denbora badugulako». Denbora eta borondatea ere bai. Egindako lana «Bera herriaren historia letrattikian» dela erranez laburbildu digu Rosak, «benetako historia kontatzeko historialariak hor daudela». Baina ezin da egindako lanari merituirik kendu. Bertatik bertara ikusten duenak jakinen du Berako herriak duen altxorren egiazko balioa zein den.



ARGAZKIAK: ROSA ETA TOTONO ERRANDONEA

1 - Rosaren lehenbiziko argazkietako bat, Morkotsenborda baserriarena. **2** - Altzateko Plaza eraikitzen. **3** - Zigardiberea baserriko On Juan Errandonea apaizaren hileta-elizkizuneko argazkia. **4** - Ezkontza bateko argazkia. **5** - Bidasoa karria duela urte aunitz, ia etxerik gabe, arto sailarekin. **6** - Totono attarekin, Berako bestetan helatuen karro gaineen. Garai hartan, ez zen helaturik izaten herrian, eta bestetan 'La Paca' etortzen omen zen karroarekin helatuak saltzera. **7** - Aspaldiko Sendotza bateko argazkia. Berako jende aunitz ageri da, eta Rosa eta Totonoren liburu bateko azaleko argazkia izan zen.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Ustezko txotxongiloa

Eskuak loturik zituen. Hari fin bat ateratzen zitzaion eskumutur bakoitzetik, ia ikusezina. Bihotz ingurutik ere beste hari bat ateratzen zitzaion, hau ere ikusezina. Oinak, bistara, libre zituen. Begirada batean txotxongiloa zirudien. Batzuetan hariak tira egiten zuten, baina berak erabakitzen zuen. Bere esku zegoela zirudien noiz utzi harietira egiten eta noiz ez. Noiz eman indarra harien tiraldietan. Eta noiz erantzun. Ezpainen ez zuen haririk. Denbora batez begira egon nintzaion, eta esango nuke ez zela txotxongiloa. Esango nuke askea zela. Loturak izan arren, ez zela loturik bizi. Bazirudien bere baitan zegoela askatasuna. Erabakiak egiten zuela libre»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Santutegiko izen normaletaz

Dolores-i min ematen dio gaur egungo gazteek izen normalik ez jartzea beraien seme-alabei. Milagrosek arrazoi ematen dio, “jaioberri bati santutegian ageri den izena jartzea miraria da orain!” erranez. Leonek ere baietz dio orroka. Deogracias bazter batean dago, ixil-ixilik, irrifartsu, jainkoari esker. Manex biloba aita egin du [zarrek] eta qustura hartu du birramatxi titulua.

Nabarmentzekoak



Arkaitz VICENTE
Lizun gaztandegia saritua

Ordiziako Artzain Egunean, Ordiziako Jatorrizko Izendapeneko kalitatearen erregulartasunaren saria jaso du Sunbillako gaztandegiak. Ez behin eta ez bitan, hamabigarren aldia da.



Maria Jesus LARRETxea
Urteko gasnaren mozketak

Elizondoko Etxetxia
gasnategiko atduradu-
nak egin zuen urteko
gasnaren mozketari Eli-
zondon, Baztango ahar-
onenak saritu zituen
Udaberriko Feriaren eki-
taldien baitan.



Martxel RODRIGUEZ
Max sarietako finalista

Antzerki eta dantza munduko profesionalen lana saritzen duen Max sarietako finalista da lesakarra. *Oskar*an egin-dako lanarengatik gizon-eko dantzari onena-ren saria jaso dezake.

Atzera begira → 2007-V-03 • TTIPI-TTAPA 445 zk.



Lesakako Musika Banda 150. urteurrena ospatzen

150 urte bete zituen duela hamar urte Lesakako Musika Bandak. Nafarroako zaharrena omen da, eta, dudarik gabe, erreferentzia garrantzitsua herriarentzat. Rafael Salcedo organista izan zen lehenbiziko zuzendaria eta geroztik, zuzendari saila pasatu dira. Urteurrenaren harira besta eguna izan zuten maiatzaren 5ean eta urte guztian bandak parte hartzen duen Lesakako ekitaldietan oinarrituz antzezlanak egin zuten. 1857ko araudia ere argitaratu zuen TTPI-TTAPAK eta sei puntuen artean honako hau ageri zen: «Fama txarreko ostatu eta inguruetan dabiltzanak bandatik kanporatuko dira».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altuzi, Joseba Urroz, Iruñe Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-djain, Martin Bertiz, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdosain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irijoien **Administratzailea** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitzia, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.



**Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua**



2017ko harpidetza sariak	
Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria , Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Kolaborazioak

Eskuin muturra

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Eskuin muturraren mehatxua aspaldi omen dabil European barna, II. Mundu Gerraz geroztik inoiz baino babes handiagoarekin herritarren artean. “Eskuin mutur”, “alderdi xenofobo”, “neonazi”, “ultranazionalista”... Komunikabideetan gero eta gehiago aditzen ditugun terminoak dira. Hego Euskal Herrian, beti Espainiatik kanpoko alderdiei lotuta aditu ohi ditugu: Frantziako Fronte Nazionala, Ingalaterrako brexiterak, Herbehereetako ilaje horiko tipo hori, Greziako neonazi beldurgarriak... Ahantzi egiten zaigu, errate baterako, Fronte Nazionala ez dela Parisen dagoen gauza bat, Ttipi-Ttapa irakurtzen duten herri batzuetan bertan dugula, eta badirela Le Penen alderdian euskaraz mintzo diren zenbait, Jean Ibarnegarairi XXI. mendean lekukoa hartzeko esperantzan. Hego Euskal Herrian, ordea, garai beltzak dira kontzientzia nazionalarentzat, Senpere eta Sara guk geuk atzerri bihurtua baitugu, eta Andaluziako EREak, berriz, gure arazo. ‘Ocho Apellidos Vascos’ sindromeak jota gabilta aspaldian. Eta, horrela bada, Hego Euskal Herrian nagusi dugun narratiban, Fronte Nazionalea, “eskuin populista”, “xenofoboak”, “neonaziak”, kanpoan gertatzen ari diren fenomenoak dira. Eta, hego euskal herritarrok, harrituta galdetzen diogu gure buruari: «II. Mundu Gerran Hitler, naziak eta Mussolini garaitu, eta europarrek berriz horretara itzuli nahi dute? Eskerrak hemen ez dagoen horrelakorik». Ez, noski. Izan ere, hemen ez da inotera itzuli beharrik, hemen gerra Hitlerrek, naziek eta Mussolinik lagundutakoek irabazi baitzuten, eta, horri esker, UPN ez da inoiz izan alderdi marjinal bat, bazter batean gordea zegoen mehatxu bat. 1936an Nafarroa Garaia odol putzu bat bihurtu zuten horien ondorengoek hausturarik gabe jarraitu dute politikan; testuingurua aunitz aldatu da hamarkada hauetan, baina UPNk ordezkatzen duen masa sozial horren funtsezko izateak 1936ko berbera izaten jarraitzen du, pentsamendu eta jarrera erreakzionario berbera da. Sartagudako esterminoa, Urbasa amilazteak, Ezkabatik ihes egin zuten preso ‘gorrien’ ehiza, Gazteluko krimena eta erreketen epika odolzalea ospatu zituen sentimendu berbera bizirik dago Nafarroa Garaiko eskuindarren ADNan. European gerra galdu zuten, Mussolini exekutatu egin zuten, naziek epaiketa berezi bat izan zuten, bere muga eta akats guziekin bazen ere ‘desnazifikazio’ prozesu bat egin zuten, nazismoaren aldeko jendaurreko adierazpenak zigortzen dituzte... eta, hala ere, beldur gara berriz bueltatuko ote diren. Orduan, zer pentsatu behar dugu Hego Euskal Herrian, milaka lagun hil, gerra irabazi, 40 urtez diktadura batekin agindu, eta bertze 40 urtez aitzineko guziarengatik inori kontuak eman beharrik gabe politikan lasai ederrean jarraitu duten horietaz? Zergatik bizi behar genuke lasaiago UPNrekin Fronte Nazionalarekin baino?

Ezin dizut lagundu

Juainas PAUL ARZAK

Armagabetzeak piztu dituen erantzun ezkorrak ulertzen ezin dizut lagundu! Pozik egingo nuen nik neuk zerbait ulertuko banu... Hobe esanda, zerbait ulertzen dudala iruditzen zait batzuetan, baina, hain da gogorra, itsusia, ezen, nahasi naizela pentsatzea nahiago dudala. Talde-eromenak egon daitezkeelako, agian holako baten aitzinean gaude, irabazleen-paranoia dei dezakegu, nolabait definitzeko. Elhuyar hiztegian ikus dezakezu eritasun horrek dituen ezaugarrien artean, nork bere burua handiestea, mesfidantza eta autokritikarako ezintasuna ageri direla nagusi. Talde kutsura egokitu eta alderdi politiko alderdikoi baten irudia duzu, ia perfektua; izan daiteke ere mendekua bihurtzen duen elkarteren batena; amorea eman ezinean dagoen talde galtzailearena izan daitekeen bezala. Bat zatotz?

Makurrage! Antzeko egoeren emaitzak ezagutzen ditugu. Berrogei urteko nolabaiteko demokrazia ez da frankismoak eta estatu kolpearen ondoko gerra zibilak utzitako zauriak sendatzeko gauza izan. Nafarroa dugu adibide nabarmenatariko bat. Hura irabazi zutenek, eta lagunek, indarrean diraute eskorta foralean, gogotsu eta sasoiari. Ugariak ematen dizkieten botoekin alderdi botere eremua eskuratzen dute; gus-tukoak ez dituzten legeak ez betetzen maisu diraute; aurkakoen burrunban nagusi dira... Laburbildurik: ustez, tarte txar bat pasatzen ari diren irabazleak dira.

Zer esanik ez hainbeste urteetako astakeria jasana naraziz eta jasotzen aritu direnak: herriaren alde haren baimenik gabe hiltzen, herriaren hobe beharrez guda giroan, ekintza-errespresio joko bortitza hartan. 36ko bazterreko gorpuak terroristenak ziren? Hiperkor eta T-4 koak etsaien gertariak? German Rodriguez ezkertiarak heriotza merezi zuen? Hainbat zinegotzik? Eta Mikel Zabaltzak, zergatik? Zein izan daiteke torturaren zurbidea? Historia bat eta bakarra? Bai: Etsaiek ez dute barkamena merezi! Agian, horretan bat etorriko ginen. Nahasi naizela pentsatzea nahiago dut.

Ezagutzen dugun historian egon bada pasarte krudelik judutarren holokaustoarena dugu. Eztabaidatu daitezke kopuruak, errudun mailak, kolaborazionisten ardura eta errua... Israelgo Estatua dugu, neurri batean, erru pilaketa haren emaitza. Aldiz, egungo Palestina, erru trukean sarraskituei onartzen zaien lapurreta, sarraskituen ondokoek antolatatu duten sarraskia. Eredutzat har dezakegu? Bakea eraikitzeko betebeharra dugu.

«Historia bat eta bakarra? Bai: Etsaiek ez dute barkamena merezi! Agian, horretan bat etorriko ginen bat»

Komikia



Irakurleak mintzo

Eskaera bat
Sarako Idazleen
Biltzarreko
antolatzaileeiJoseba AURKENERENA
(Urruña)

Aberri Eguna ala Sarako Idazleen Biltzarra? Horrela izan da aurten, nahita nahi ez, orain arte Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu dugun idazle ttipioi harrazi diguten hautua, eta ainitzi konponezinezko korapilo bihurtu zaigu.

Sarako Idazleen Biltzarra orain arte, aitzindaria izan da Iparralde osoan, idazle eta erosle-irakurleen arteko harreman zuzeneko kontuetan, horretaz gain, ongi antolatua eta arras baliagarria. Lerro hauetatik nire eskerrik beroena helarazi nahi diet urte urte, eta jadanik aurten 34 urte luzez, biltzarra antolatu duten guztiei. Milesker bihotzez.

Aurten, berriz, egoera arras makurra gertatu zaigu. Biltzarrak bi eguneko egitura hartu du –eta horren aurka ez dut deus erran beharrik–. Arazoa zera da, lehen Bazko astelehene-

an egiten zena orain Bazko igande eta astelehenera pasatu dela, eta ezinbesteko baldintza parte hartzeko bi egunetan bertan egon beharra ezarri dutela.

Argitaletxe handientzat ez da arazo, baina idazle abertzale ttipientzat bai, hori *de facto* gaindiezinezko oztopoia baita. Zer egin behar dugu, Aberri Egunean Saran egon gure bihotzaren kontra eginez? Norbait ordaindu behar dugu igandean gure salmahaian egon dadin?, zeren gure ingurukoak, senideak eta adiskideak Aberri Eguna ospatzen egonen baitira.

Eta norbaiti ordaintzeak merezi digu lauzpabost liburu bakarrik saltzen ditugun idazle ttipioi? Lehenagotik dugu Aberri Eguna Biltzarra baino, beraz, zerba it konpondu behar bada Biltzarraren afera da, argi eta garbi.

Nik lerro hauetatik, jendaurreko gutun honen bidez –barneko bi-deak erabiliz ez baitut deus atzeman–, irtenbide bat galdatu nahi nieke Sarako Idazleen Biltzarraren antolatzailei eta sostengatzailei. Konponketarako bi au-

kera ikusten ditut. Lehen a litzateke idazleoi aukera ematea, orain arte izan den bezala, astelehenean bakarrik egoteko. Bigarren aukera, berriz, Biltzarra dataz aldatzea. Dena den, ene ustez, lehen aukera da errazena eta garbiena.

Bihotzez itxaro dut, afera itxusi hau hurrengo urterako konpon dadin, nik –eta jakin badakit nire kasu berean idazle eta elkarte ttipi gehiago izan direla–, aurtengo edizioan neurere burua guztiz baztertuta eta diskriminatuta ikusi baitut, Biltzarrean parte hartu ezinik.

Borondate pixka batez, bada irtenbidea, eta horixe da galdatzen dudana 2018ko Biltzarrean, orain arte egin dudan bezala, Bazko astelehenez parte hartu ahal izatea. Biba Aberri Eguna eta biba Sarako Idazleen Biltzarra! Adeitasunez.

Carolinen
esker onakRosa Mari ERRANDONEA
(Berako Bastidako
famiariaren izenean)

Jende aunitz oroitu da gure amak, Carolinak, ehun urte betetzen dituela, opari ugari izan ditu, eta guztiei eskerak eman nahi dizkiegu. Familiakoekin egingdako bazkaria hagitz polita izan da. Baina azpimarratzekoa Dornaku eta Garraitarreta auzoetako baserri guztiek,

Dornakuko elizan, eskaini dioten ospakizuna. Sorpresa izugarri polita izan da. Gaur egun ez da erraza horrelako elkartasuna erakustea zerbait antolatzeko, benetan eskertu nahi diezuegu gure amarentzat antolatu duzun ospakizuna. Amak horrelako jendetza ikusi zuenean egindako galdera izan zen, hauek denak niregatik etorri dira?. Baita eskerrak Berako Abesbatzari ere, beren abes- tiekin giro hagitz polita jarri zutelako.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Hemengo egitura sozial eta urbanistikoa iraultzen du [Aroztegiako proiektuak]. Hor duzu, adibide, Lapurdiko itsasertza. Bertze hainbat adibide dituzu Espainiako Estatuan. Proiektu politiko jakin baten defentsa zilegi da, baina herritarren kontrako, Udalaren eta Batzar Nagusien kontrako erabakia hartu eta inposatzea ez da onargarri».

Garbiñe ELIZEGI
Baztango alkate ohia
ARGIA 2017.04.09



«Musika entzuteari ez diot inoiz utzi. Musika barruan daramat eta beti balio izan dit, negar egiteko hori behar nuenean, edo pozik jartzeko, edo errabia ateratzeko... Musika beti erabili dut, eta beti begiratu diot. Hori hor daukazu. Baxua hartu gabe urteak pasa ditut, baina soinua maiz jo izan dut etxean (...) Erraz hartu dut berriz ere baxua».

Garbiñe SAGASTIBELTZA
Leitzako musikaria
Tol. Ataria 2017.04.03

11 galdera labur

Nor dugu Nahikari Vegas Maisterrena?

Hanka bat Amaiurren eta bertze hanka Lizarran duen 21 urteko neska.

Zein afizio dituzu?

Mendira gatea, itsaso bazterrean gustuko liburu bat leitza... lasai egotea.

Zein liburu gomendatuko zeniguke?

Kutsidazu bi-dea lxa-bel.



Nahikari VEGAS MAISTERRENA → Amaiurko gaztea

Astebururako planik ederrena?
Lagunen eta familiaren konpainia goxoan disfrutatzea.

Bidaiaitzea gustuko duzu?

Bai, anitz. Nahiz eta nahi dudan guztietan ezin egin. Normalean udan eskapada bat egin ohi dut, erlaxatu eta toki berriak ezagutzeko.

Zer behar duzu ezinbestean mailetan?

Konpainia pollite bada, gauza aunitzik ez.

Bisitatu duzun gustuko toki bat?
Covadongako aintzirak.

Amaiurko gustuko txoko bat?

Herriko txoko guziak maite ditut. Baina bat aukeratzekotan, monumento kaskoko lasaitasuna.

Zeintzuk dira zure adineko gazte baten kezkek?

Ikasketak akituta etorkizuna zein izanen ote den.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gauza berriak egiteko gogoz.

Amets bat?

Furgoneta hartu eta helmuga zehatzik gabe bidaiaitzea. Munduko xoko anitz bisitatuko nitzuke gustura.

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
34780 bera (navarra)
t.948 63 08 99
www.sarobe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK
BORTZIRI
UNSION ANAIK
Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Goieko **DESIN** **ERA**
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guztietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoak garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

ERREKALDE
OSTATUA
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATIAK
TFN: 948 630 254
BERA

GIZARTEA

LANA → LAB SINDIKATUAK KEZKA ADIERAZI DU

Arcelor Mittal-eko lantegietan kontratu eta inbertsio berriak eskatu ditu LABek

Legasa eta Lesakako lantegiek 422 langile galdu dituzte azken hamar urteotan

TTIPI-TTAPA

LAB sindikatua kezkatuta dago Euskal Herriko Arcelor Mittaleko lantokiak pairatzen duten egoerarekin. Xehetasunak xehetasun, Hego Euskal Herriko lantokiak egoera berdina da: enplegu suntsiketa, langile falta, prekaritate gehiago eta inbertsiorik ez dago. Kontratazio berririk gabe eta inbertsiorik gabe, Euskal Herriko lantokiak etorkizuna kolokan dagoela begi-bistan dago. Hala, LAB sindikatuak



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herri osoko Arcelor Mittaleko ordezkariak agerraldia egin zuten Bilbon.

agerraldi bat egin zuen apirilaren 21ean Bilbon, Arcelor Mittaleko Euskal Herriko lantegien egoerari buruz egiten duen analisia jakinarazteko.

LABek Arcelor Mittal multinazionalaren alde-rik ez du ikusten, «ez apusturik, ez konpromisorik lurralde honekiko». Bitartean, langileen lan baldintzak etengabe

okertzen ari dira. Azpikontratazioa gero eta handiagoa da, Arcelor-ek betidanik eskaini dituen zerbitzuak azpikontratatu (laborategia, biltegia...). Egoera honek bertze lurraldeetan egin dituen inbertsioekin eta kontratazio berrieekin talka egiten du, Asturiasen bezala. Beraz, inbertsioak badaude, baina ez Euskal He-

rrian.

2007. urtean Mittalek Arcelorrek altzarutegiak erosi zituenetik, 1.758 lanpostu inguru suntsitu ditu, langileen %51 baino gehiago, hau da, lanpostuen erdia baino gehiago. Galera hau, gainera, lantoki guztietan ematen da. Lesaka eta Legasako lantegien kasuan, hamar urteotan

847 langile izatetik 425 izatera pasatu da, 422 guttiago.

Lantokiak beharrezko funtzionamendutik haratago doan inbertsiorik ere ez dago. Azken 5 urteetan erraterako, Lesakan 1.100.000 euro inbertitu dira, baina Euskal Herriko gainerako lantegi gehienetan, ez da deus inbertitu, Etxebarrin izan ezik.

LAB sindikatua errealitate hau Euskal Herriko lantokietako langileekin konpartitzen hasia da dagoeneko. Euskal Herriko lantokiak etorkizuna bermatuko duten inbertsioak ekarri behar ditugu; enplegu berria sortu eta Kalitatezko enplegua defendatu. Azpikontratazio gehiagorik ez!», dio sindikatuaren oharra.



2017-2018 ikasturtea
LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
D EREDUAN (EUSKARAZ)
TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

AURREINSKRIPZIOA MAIATZAREN 8tik 15era

Telefona: 948 625 000

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>

iesbera@educacion.navarra.es



GIZARTEA → UDAZKENERAKO INSTALAZIOA MARTXAN EGOTEA ESPERO DA

Lesaka-Bera ur-hornidura proiektua esleitu du Udalak

Mariezkurrena eraikuntza enpresak egingen ditu maiatzetik aitzinera eta bortz hilabetez bukatuko ditu lanak

TTIPI-TTAPA

Bera eta Lesakako ur hornidura arazoak moldatzeko proiektua esleitu du Udalak. Mariezkurrena eraikuntzak izan da eskaintza tekniko eta ekonomikorik onena egin duena (1,3 milioi euro + BEZa) eta lanak maiatzean hasiko direla aurre ikusten da. Bortz hilabetez luzatuko dira obrak eta udazkenerako instalazioa martxan egotea espero da.

Hainbat urtez landu den proiektua izan da hau, batez ere herriko hornidura arazoak moldatzeko, eta badirudi azkenean gauzatuko dela. Proiektuak Nafarroako Gobernuaren %90eko dirulaguntza izanen du eta gainerako %10 Bera (honen %65a) eta Lesakako udalen (gainerako %35a) artean ordainduko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Isidoro Fagoaga omenduko dute larunbatean Agramontean

Apirilaren 21etik maiatzaren 21era Isidoro Fagoagaren ibilbidea biltzen duen erakusketa zabalik dago Kultur Etxean (ortzegunetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era). Inaugurazio ekitaldia (argazkian) apirilaren 21ean egin zuten eta Karnaba otxoteak ere abestu zuen. Apirilaren 28an, *Isidoro Fagoaga, idazle eta kantari beratarra* solasaldia eskaini zuen German Ereña ikerlariak. Omenaldi nagusia, maiatzaren 6an, larunbatean 12:30ean egingen zaio, Abesbatzaren, Bandaren eta Gure Txokoako dantzarien eskutik. Illeketako Agramontean, bere sortetxean, oroit-plaka bat ere paratuko zaio.

DATORREN ASTEAN HITZALDIA ETA KONTZERTUA ERE IZANEN DIRA

Zimiko Punk jaialdia larunbatean Katakun

TTIPI-TTAPA

Apirilean hainbat ekitaldi antolatu ditu Katakun herri ostatuak. Askenaren hitzaldia, pegatzen erakusketa, Kaskezun, Candidato Manchu eta Sorootan Babies taldeen kontzertuak. Aitzinera begira, maiatzean ere ekitaldi politak prestatu ditu.

Maiatzaren 6an Zimiko Punk jaialdia egingen dute bertez urte batez Katakun. Bazkariaren ondotik, 16:00etatik aitzinera El exterminio

de la raza del mono, Baserriko olaskuek labien, Ostion, Txorroskilo, Yakovlev42, korkones, Holy nuns eta T.A.D. taldeek joko dute.

Maiatzaren 11n, ortzegunearan Dantzara Plazara Baztango taldearen eskutik hitzaldia antolatu du Goltatz Berako Emakume Talde Feministak.

Maiatzaren 12an, ortziralean kontzertua eskainiko dute Occhi di farfalla eta Doble capa taldeek.

FLASH

Ricardo Baroja eskolak argazki rallya prest

Ricardo Baroja eskolako Guraso Elkarateak antolatuta, LHko 2. eta 6. maila arteko ikasleek argazki rallya egingen dute maiatzaren 6an, 16:00etatik 18:30era. Argazkien erakusketa ekainaren 1 eta 2an jarriko dute Kultur Etxean (17:00-19:00).

Liburu sendalaria

Berdintasuna eta tolerantzia lantzen duen *Liburu sendalaria* proiektuaren aurkezpena egingen dute maiatzaren 12an, ortziralean 18:00etan liburutegian.

Bertako ekoizleen merkatua

Bertako ekoizleen produktuen merkatua izanen da maiatzaren 13an, larunbatean 10:00etatik 13:30era Ricardo Baroja eskolan.

Mugaz Gain antzerki jaialdia

Mugaz Gain antzerki jaialdiaren baitan, maiatzaren 11 eta 12an DBHko ikasleen emanaldiak izanen dira eta 12 eta 13an Lehen Hezkuntzakoak.

Felix Errandonea 40. Memoriala

Felix Errandonearen omenez 40. txirrindularitza proba egingen dute maiatzaren 6an, 17:00etan hasita. Bolutarioak behar ditu Gure Txokoak.

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LESAKA

KULTURA → BAKARKA EZ EZIK, DANTZA ANTZEZLE TALDE ONENA ERE LOR DEZAKE

Max Sarietako finalista da Martxel Rodriguez dantzaria

‘Oskara’
ikuskizunean
egindako
lanarengatik

Aitor AROTZENA

Max Sariak 1998an sortu zituen SGAE Fundazioak dantzaren eta antzerkiaren munduko profesionalen lanaren balioa eta denboraldi bakoitzeko ikuskizunak sustatzeko. Aurtengo hogeigarren edizioan, *Oskara* dantza ikuskizuna da sarietako faboritoetako nagusia, zazpi izendapenekin. Horietako bat, Martxel Rodriguez Etxabidek jaso du: gizonezko dantzari onenarena. Dantza antzezle talde onenaren izendapenean ere sartua dago Martxel, Jon Maya, Eneko Gil, Ibon Huarte, Urko Mitxelena eta Alain Maya bere taldekideekin batera.

Denera, zazpi hautagaitza eskuratu ditu Kukai dantza taldeko Jon Maya eta La Veronal taldeko Marcos Morau ko-reografoek prestatutako *Oskara*-k.

Martxel Rodriguezek pozez gainezka hartu du izendapena: «lehenetik ere poz handiak eman dizkit Oskararak eta hau pastelaren ginda da. Jon Mayak deitu nin-



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Martxel Rodriguez, Artea Oinez erakusketaren irekiera ekitaldian dantzatzen Iruñean.

duenetik proiektuan parte hartu nahi ote nuen galdetuz, eta gero egin dugun ibilbide osoa hagitz polita izan da. Marcos Moraurekin lan egin ahal izatea ere plazer hutsa izan da nerezat eta gauza aunitz eman dizkit maila pertsonalean eta profesionalean... 13 dantzari hautatuetatik bat nintze-lakin nuenean handia izan zen eta orain, hiru finalisten artean nagoe-lakitea ikaragarria».

Arte Eszenikoen Max Sariko irabazleak ekainaren 5ean jakinaraziko dituzte, Valentziako Palau de les Arts aretuan eginen duten jaialdian.

FLASH

4x4 sokatira txapelketa

Nafarroako launakako sokatira txapelketako lehen jardunaldia jokatuko da maiatzaren 6an, larunbatean 17:00etan udal pilotalekuan. Beti Gaztek gizasemeen eta emakumeen bi kategorietan taldeak aterako ditu.

Txamukos Mariatxiak

Txamukos Mariatxiak taldeak bigarren diska aurkeztuko du maiatzaren 13an, larunbatean 19:00etan Harri-ondoan.

II. Argazki Rallya

Bigarren urtez argazki rallya antolatu du Beti Gazte elkarteak. Maiatzaren 14an, igandean 10:00etan dute hiztordua argazkizaleek.

112 KILOMETROKO IBILBIDEA OSATU BEHARKO DUTE TXIRRINDULARIEK

Salvador Yanciren omenez 4. martxa igandean

A. AROTZENA

Salvador Yanci zenaren omenez martxa zikloturista ez lehiakorra egiten dute laugarren urtez, maiatzaren 7an, Beti Gaztek, Gure Txokoa, Erreka, Aizan, Baztandarra, Urtxintxa eta Igantziko Biltoki elkartearen eta Udalaren laguntzarekin antolatuta.

Ibilbidea 112 kilometrokoa izanen da, Lesakan hasi eta bukatu. Goizeko 9etan abiatuta, Lesakatik Berara joan eta berriz ere Lesakan sartuko dira txirrindulariak, Bereau, Berrizaun, Sunbilla, Donezteboko bidegurutzea, Legasako bidegurutzea, NARBART, Oronoz-Mugairi, Ziga (Belaten barna), Irurita, Elizondo, Otxondoko gaina (jan-edatekoak), Urdazubi, Zugarramurdi, Berruet

Benta, Sara, Lizaietako gaina eta Etxalarren barna igaro ondotik, Plaza Zaharrean helmugaratuko dira parte-hartzaileak. 14:30ean itxiko dute kontrola.

Aitzinetik izena eman daiteke www.kirolprobak.com webgunean. Federatuek 10 euro ordaindu beharko dute eta federatu ez direnek 15 euro. Beti Gazteko bazkide federatuek 5 euro ordainduko dute eta federatu ez diren bazkideek 10 euro. Egun berean ere eman daiteke izena Herriko Etxeko arkupetan, 7:30etik 08:30era. Kasu honetan, federatuek 15 euro eta federatu gabeek 20 euro ordaindu beharko dute. Beti Gazteko bazkide federatuek 10 euro eta federatu gabekoek 15 euro.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erregetia · Asador
Bitorrana, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR
• Pentsu ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
ETXEZ ETXKO BANAKETA

KULTURA → BESTETAKO BATZORDEAK LEHEN ALDIZ

Bestetako kartel eta azal lehiaketa antolatu dute

Maiatzaren 31 bitarte aurkez daitezke lanak

Irene ELIZAGOIEN

Kultura Batzordeak, bestetako azal eta kartel lehiaketaren deialdia zabaldu du. Estreinakoz antolatu dute lehiaketa eta edonork parte hartu dezake, bakoitzak nahi bertze lan aurkeztuz. Kartelak A3 tamainan inprimatuta aurkeztu beharko dira eta baita formatu digitalean ere, 300eko erresoluzioarekin eta bertikalean, edo kartulina edo paper lodian. Azalak berriz, paper lodi edo kartulinan A4 neurrian aurkeztu behar dira eta marrazki edo argazkiak erabilita, diseinu bertikala osatu beharko da.

Azalean *Etxalarko Bestak 2017, Abuztuaren 14tik 18ra* testuak bakarrik agertu behar du. Kartelean, testu ho-

rretaz gain, egileak bestetako programa zehatza sartzeko tokia utzi beharko du.

Gaia, estiloa eta erabilitako teknika libre izanen dira eta lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Lanak maiatzaren 31ko 19:30 baino lehen aurkeztu beharko dira Kultur Etxean edo kulturetxea@etxalar.eus helbidera bidali, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Kartel irabazlearen egileak 50 euro eta bi lagunentzako bazkari edo afari bat irabaziko ditu Etxalarko Herriko Ostatuan. Azal irabazleak, berriz, 100 euro.

Akordeoilarien topaketa larunbatean

Nafarroako akordeoilarien elkarteak an-



ARGAZKIA: REBECA ARANZADI

Ritme alaia, Nafarroa eta Katalunia lotuz

Apirilaren 13tik 16ra Rebeca dantza akademia, Bartzelonako Fanatix eskolarekin batera Bartzelonan elkartu zen lehenengo Ritme Alaia kongresuan. 55 lagun joan ziren Nafarroatik eta horien artean ziren Etxalarko hainbat dantzari. 8 master klasez gozatzeko aukera izan zuten estilo desberdinetako dantzak praktikatzuz. Amañur, Oxel, Ane eta Danielak dantza-gudetan ere parte hartu zuten eta azkeneko bi hauek bi filtro pasatzea lortu zuten.



ARGAZKIA: MATTIN SANZBERRO

510 mendizale Etxalarko III. Mendi Itzulian

Apirilaren 23an egin zen Etxalarko III. Mendi itzulia eta bertze urte batez, eguraldi bikaina lagun, hagitx giro polita sortu zen herrian. Euskal Herri osotik hurbildu zen jendea itzulia egitera, 510 lagun. Altxata kultur elkarteak eskerrak eman nahi dizkie egunean bertan lanean aritu ziren boluntario guztiei.

tolatuta, maiatzaren 6an Etxalarren ospatuko da Nafarroako Akordeoilarien Topaketa. Larunbatean 11:00etan akor-

deoilariei ongietorria egingen zaie eta kalejira egingen da herrian barrena. Ondotik, 14:30etan frontoian bazkaria egi-

nen dute 200 bat lagunek eta ondoren Juan Jose Tomasena akordeoilariari omenaldia egingen zaio.



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, **GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK,** bizikleta estatikoak lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA **948 631 218**
kateabera@telefonica.net

MASSIMO ORBEA CANNON SCOTT LOOK



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info



ARANTZA

GIZARTEA → MAIATZAREN 6AN

85 herritar ageri diren Gure Esku Dagoren bideo-klipa aurkeztuko dute larunbatean

Arratsaldean
Baskulan
ikusteko aukera
izanen da

Nerea ALTZURI

Adin diferentetako herritar saila ageri dira Gure Esku Dagoren baitan, borts herrietan grabatu duten bideoklipen: haurrak, gurasoak, gazteak, jubilatutak, musikariak, baserritarrak, dendariak, ostalariak, bertze zerbitzuetako langileak, osasun arloko profesionalak eta zientzialariak, kirolariak... 85 dira guztira. Batzuk kantari eta bertze aunitz irudietan ageri dira. Bada ikus-entzunezko hori ikusteko aukera izanen da larunbat honetan, maiatzak 6, Baskulan. 18:00etatik 20:00etara bitartean, ordu laurdenero emanen dute bideoklipa eta Baskulako atea irekia egonen da ikusi nahi duenarentzat.

Ba al zenekien

Ekologia eta naturarekin duen konpromisoarekin segituz, Udalak bere potentzia handiko kontratuak energia berriztagarrietara pasatu dituela?

Udal langile berriak

Langile berriak hasi dira Herriko Etxean, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin: idazkariaren laguntzaile lane-tan Gotzon Arenas ari da. Igantzi eta Arantzako udaletxeetan ari da eta sei hilabetez ariko da. Bertetik, Jesus Mari Goizueta herriko lanetan ari da eta lau hilabetez lan egingen du. Biak lanaldi osoan ari dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bigarren mendi lasterketa arrakastatsua

Apirilaren 23ko mendi lasterketak harrera beroa izan zuen. Eguraldi paregabearekin, 201 lasterkarik akautu zuten ibilbidea. Tartean ziren herritarrek ere: Asier Apeztexea, Dani Iparragirre, Imanol Lukanbio, Xabi Iturria eta Gotzon Arenas. Baita Jexux eta Lierni Larretxea atxa-alabak eta Oskar Cabodevilla ere (informazio guztia 38. orrialdean). Aitzineko egunetan eta egun berean ere, herritar aunitz aritu ziren lanean. Auzolan handia izan da aurtengoa ere eta Udalak eta Ekaitza Elkartek eskertu nahi dituzte modu batean edo bertzean parte hartu duten guztiak.

MAIATZAREN 4AN

'Ispiluari begira' haur eta gurasoentzako tailerra

Arantzako Euskara Batzordeak eta UEMAK antolatuta, bertako haur eta gurasoentzako tailerra izanen da ortzegun honetan, hilak 4, 15:00etatik 17:00etara eskolan. UEMAKo teknikariek gidatuko duten tailerrean gurasoek eta haurrek parte hartuko dute.

Gauza jakina da haurren heziketaren zutabe nagusiaren eskola eta etxea direla. Hartara, irakasleak eredu dira haurrentzat, baina baita gurasoak ere. Hortaz, saio honen helburua hausnarketa tiki bat egitea da eredu izateari buruz eta hizkuntzaren inguruan,

baita gurasoen hizkuntza ohiturak eskolaren errealitatearekin bat etortzeko saiakera egitea ere.

Saioa haurren begiradatik hasiko da, haien inguru hurbiletik. Alegia, etxean, eskolan, kanpian... egunero harreman horietan sortzen den komunikazio hizkuntza zein den ikusiz. Hori aztertzeak haurrek ariketa bat egingen dute eskolan, jolas modukoa, kolore eta marrazkiekin. Gero haurrek lan hori aurkeztuko diete gurasoei, eta hortik ondorioak aterako dituzte, eta errealitatea aldatzeko aukerak pentsatuko dituzte.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko internet
- Internet konexio simetrikoki ultralasterra

Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

KULTURA → MAIATZAREN 6AN GAZTEEN ESKUTIK

Kontzertuak prest dituzte BTT jautsiera egunerako

Juantxo Skalari & Rude Band, Willis Drummond eta Koban taldeek joko dute

TTIPI-TTAPA

Igantzikozko gazteek, Udala erekin batera eta herriko ostaluen eta gurasoen laguntzaz kontzertuak antolatu dituzte maiatzaren 6an. Larunbat arratsaldeko 8:30ean trikipotea izanen da giroa animatzeko eta 22:00etan hasi-

ta kontzertuak Iruñeko Juantxo Skalari & Rude Band, Baionako Willis Drummond eta Donostiako Koban taldeekin. Sarrera doan izanen da.

Igantzikozko gazteak duela bi hilabate inguru hasi ziren elkartzen kontzertu hauek antolatze-ko ideiarekin eta udalarekin solastu ondoren, aurrera segitu dute. Egun horretan bertan, Igantzikozko Biltoki Elkar- teak antolatuta Xabi Telletxea BTT jautsiera proba dela aprobetxatuz, arratsaldeko giro onarekin segi nahi dute gauean, bai trikipotea-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Frain mendian beheiti jauzi ikusgarriak izanen dira larunbat honetan ere.

rekin, baita kontzertuekin ere.

Autobusak izanen dira ondoko herrietatik kontzertuetara etortzeko eta joateko. Bokadilloak jateko aukera ere eskainiko dute txoznetan eta Igantzikozko gazteak saltzen ari diren boltoen zozketa ere egingen dute kontzertuetan. Lehenbiziko saria Elgorriaga bainuetxean gauden egonaldia, gosaria, zirkuito termala edo spa izanen da. Eta bi bigarren sari izanen dira, Elgorriaga bainuetxean zirkuito termala.

MAIATZAREN 20AN

Xabi Telletxearen omenez mendi bizikleta jautsiera larunbatean

TTIPI-TTAPA

Xabi Telletxea zena gogoan, aurturaren BTT edo mendi bizikleta jautsiera antolatu du Biltokiak. Maiatzaren 6an egingen da eta aurtengoa zazpigarren aldiz izanen da Xabi Telletxearen omenez, nahiz eta berez, 2002an egin zen lehen edizioa. Aipatzekoa da Nafarroako Txapelketa izanen dela eta gisa berean, Euskadiko Opienerako puntuagarria.

Goizean entrenamenduak egingen dira, 09:00etatik 12:30era. Eta lehen txanda 15:00etan hasiko da.

Informazio gehiagorako 608 935282 telefonora deitu edo igantzikobiltoki@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**Udaberriko
kolekzio berria!**

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

SUNBILLA

GIZARTEA → APIRILAREN 14TIK 16RA EGIN ZUTEN

962 pintxo saldu dituzte Pintxoaren V. Astean

Fonda ostatuko patata purea arrautza egosi trufatuarekin pintxoak izan da garaile

zuna, iberiar paparra eta ziapi saltsarekin. Irabazlea Fonda ostatuko patata purea arrautza egosiarekin pintxoak izan zen, txapeldunordea Kanpineko brika eta hirugarren postuan Bustitzeko porrusalda krema. Pintxoak dastatu zituzten guztien artean



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Mari Paz Genbelzuk irabazi zuen pintxo lehiaketan bozka emateagatik zozketatutako saria.

magra bat eta bi botil ardo ere zozketatu zituzten eta irabazlea Mari Paz Gelbentzu izan zen. Zorionak!

Eskerrik asko pintxo astea antolatu duten hiru ostatuak. Herrian giro bikaina izan baita bertze behin ere.



Pertsonaia

Arkaitz VICENTE URKIO

Berriz ere Idiazabal Jatorriko gaztarik erregularrena izendatu dute Lizungoa

Apirilaren 19an Ordizian ospatu zen Artzai egunean, hamabigarren urtez Erregularraren saria jaso zuen Lizun gaztandegiaren izenean. Lerro hauen bidez Lizun gaztandegiko familia zorionduko du gu egiten ari diren lan guztiarengatik eta horrek duen emaitzarenatik, zorionak.

Maidar PETRIRENA

Aste Santuko laburpen bat eginez, aipatzekoa da, bosgarrenez antolatu den pintxo asteak izan duen arrakasta. Ostiraletik igandera izan da eta guztira 962 pintxo saldu dituzte Ariztigain Kanpina, Fonda eta Bustitz ostatuen artean. Ostatu bakoitzean bi pintxo dastatzeko aukera eskaini zuten: Ariztigain kanpinean, zezen buztanaren brika eta guakamolekun bakailao cevichea; Fonda ostatuan, patata purea arrautza egosi trufatuarekin eta barazki hanburgesa tipula eta xingar maionesarekin eta Bustitz ostatuan, porrusalda krema, bakailaoa eta piper gorri konfiturarekin eta zerri azpi-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Ortziral Santuko prozesioa

Eguraldi ederra lagun, Ortziral Santuko prozesioa egin da, urtero bezala.



Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 5 ETA 6AN

Udaberriko Feria eta Jakoba Errekondoren tailerra asteburuan

X. Ahari lehiaketa ortziralean egingen dute

Marga ERDOZAIN

Udaberriko ferien baitan, ahari lehiaketaren hamargarren edizioa antolatu dute. Goizeko 11etatik 13:30era egingen da ahari lehiaketa eta epaimahaioek 6 sari banatuko dituzte: hiru ahari mutur gorriendako eta hiru mutur beltzendako. Kategoria bakoitzean lehenbiziko saria eskuratzen dutenek 120 euro irabaziko dituzte, bigarren saria lortzen dutenek 70 euro eta hirugarren saria irabazten dutenek 50 euro. 13:30ean izanen da sari banaketa. Horiekin batera, Malerrekako eskulangileen postuak (10-12 postu) eta abere erakusketa ere ez dira faltako.

JAKOBA ERREKONDOREN TAILERRA

Maiatzaren 6an, Jakoba Errekondoren go-



ARGAZKIA: MARGA ERDOZAIN

Hiru auzo konposta gune berri jarri eta batzuk hondatu dituzte

Konpostajea indartu nahian, hiru auzo konposta gune berri jarri dituzte martxan: Inzakardin (errekaren ondoan), Merkatuko bidean (autobus geltoki zahararen ondoan) eta Elizagibela karrikan (atzealdean). Gune bakoitzak bi konpostagailu handi ditu eta erdian txiki bat. Txikia txirbila kontzeko erabiliko da eta jendeak hondarrak bertze bietan bota beharko ditu. Txandaka erabiliko dituzte, beraz, beti bat itxita egonen da eta bertzea irekia. Ezin izanen da txirbila kontzeko erabiliko den konpostagailuan edo itxita dagoen konpostagailuan hondarrak bota. Hondakin organikoak konpostatzen hasi nahi duenak Mankomunitatean eman beharko du izena eta, nahi izanen gero, kubo marroia eskuratzeko aukera izanen du. Aipatu behar da gune hauek gora behera batzuk izan dituztela (Inzakardi eta Merkatuko bidekoak suntsiketarik nozitu dituzte). Pena da horrelako argazkiak ikustea, egin duenari honako datu hau eman beharko genioke: Malerrekan apirilaren 8an bi tona konposta banatu zirela, 19 familia bertaratu zirela.

mendioak entzuteko aukera izanen dugu bertze behin ere. Iaz, *Bizi baratzea* liburuaren aurkezpena egitera etorri zen eta oraingoan, herri baratzeak bisitatu eta

bertan, tailer bat eskainiko du. Egindako lana ikustearekin batera, aholkuak ere emanen ditu. Goizeko 11etan hasiko da tailerra, doakoa izanen da eta interesa

duen edonork parte hartu dezake, ez da beharrezkoa herri baratzea izatea. Tailer honekin herri baratzeei bertze bultzada bat eman nahi die Udalak.

FLASH

Udarako kontratazioak

Udarako hainbat langile kontratatuko ditu Udalak. Momentuz hauek dira publiko egin dituen deialdiak: igerilekurako hiru sorosle, igeriketa ikastaroak emateko irakasle bat eta ludotekarako arduraduna. Beraz, interesa dutenek Enplegu Bulegoan izena eman beharko dute. Edozein zalanza edo argibide nahi izanez gero udaletxetik pasatzen ahal da edo 948 45007 telefonora deitu. Lanpostu hauetaz gain, igerilekuko taberna hartzeko baldintzak ere prestatzen ari dira (interesatuak erne egon beharko dute).

Neska futbolariak

San Miguel ikastetxe-ko neska txapeladunorde izan dira Osasunak antolatutako Eskola arteko nesken I. Txapelketan. Apirilaren 22an Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxearen aurka jokatu zuten finala 1-0 galdu zuten. Azpimarratu behar da Zubietako Zaira Bendoiro txapelketako jokalarik hoberena izendatu zutela. Zorionak neskei, badakigu bai ederki ospatu zenutela!



DONEZTEBEN KONTSULTATEGI BERRIA

KARLOS ALZUGARAY

OSTEOPATA Eur. Ost.D.O

TRATAMENTUAK

- BIZKARREKO ARAZOAK • ZAINBIHURTUAK • KIROL-LESIOAK
- ANGINAK • MASAJEAK • SORTU BERRIAK • BURUKO MINAK

BERA Itzea, 20, Behea • DONEZTEBE Elizagibela, 4 behe • HITZORDUA 607 853 208

www.osteopatiaalzugaray.com

ZUBIETA

GIZARTEA → APIRILAREN 12AN

Interneteko seinale indartsuagoa lortzeko moduaz bilera egin dute

Nahikoa jendek izena emanen balu antena ere jarriko luke enpresak

Fermin ETXEKOLONEA

Apirilaren 12an interneti buruzko bilera informatiboa egin zuten Herriko Etxean. Jendea bilduz gero, uhinen bidez Internet seinale sendoagoa lortzeko aukera badela aipatu zuten. Apuntatzeko orriak udaletxean daude eta 10-12 lagun bilduz gero, antena jarriko luke enpresa horrek.



Mieltxo Mindegia aurrera

Mieltxo Mindegia Banakako Urrezko Aizkolariak txapelketako kanporaketa gairiditu du. Apirilaren 23an nagusi izan zen Araban egindako saioan.

Udako ludoteka ingelesez

Apirilaren 18an egin zen bertze bilera, hurrek udako ludoteka ingelesez izateko aukera aztertuz. Hemen ere guttieneko kopuru bat beharko litzateke taldeak egiteko. Interesadunek izena eman beharko dute udaletxean.

Malerreka Eguneko lanak

Zubietarrak joalduak eramanen dituzte, Muxikoak, paella bat ere egingen dute, bazkalondoko mahai inguruko kantuetarako soina ere zubietarrak eramanen dute. Mus txapelketako herriko kanporaketa saioa maiatzaren 12an



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Mendi ateraldia, paella jatea eta erroskila tailerra

Amezti ingurutik mendi ibilaldia antolatu zuen apirilaren 20an Txitxillo Guraso Elkarteak. Goizeko 10etan abiatu eta 12ak alderako berriz bueltan ziren parte hartu zuten 30 bat haurrak eta 10 helduak. Ondoren, denentzat paella eder eta goxo bat prestatu eta plazan bertan jan zuten, indarrak berritzeko. Arratsaldean, erroskila tailerra izan zen eta haurrek prestatu ondoren, dastatzeko aukera izan zuten. Erroskilez gain, gofreak eta txokolatzeko batidoa ere egin zituzten eta modu honetan, berendu afaria eginda bukatu zuten eguna. Eguraldia ezin hobe izan zen, eta giroa, zer esanik ez!

jokatuko da, ostiral gaueko 10ak aldera Errandonean. Bikote

txapelduna izanen da herriko ordezkaria Urrozren maiatzeko azken

larunbatean. Ea joan den urteko txapelari eusten dion herriak!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ORBELA
SENDERISMOA ATERPENA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

MALERREKA

GIZARTEA → ITURENGO PULUNPA ESKOLAN DEIALDIA

Eskolako sukaldari eta zaintzaile izateko hogeit hamar lagun aurkeztu dira

Euskara probaren ondoren proba praktikoa eginen dituzte hautagaiek

Arkaitz MINDEGIA

Iturengo guraso elkarteak sukaldaria eta zaintzaileak kontratazeko lan deialdia egin zuen apirilean. Horren harira, sukaldari izateko eta zaintzaile izateko hamarna lagun aurkeztu ziren eta Guraso



Elkarteko eta jantokiko kideek balorazio prozesuak egin dituzte. Euskara titulua falta dutenek maiatzaren 3an iza-

nen dute euskara frogara. Ondotik proba praktikoa izanen da: sukaldari lanetara aurkeztu direnak maiatzaren 5ean

17:00etan izanen dute eta maiatzaren 12an 19:00etan berriz, zaintzaile posturako aurkeztu direnak.



Pertsonaia

Luismi APEZETXEA

Txapeldun izan eta 32 urte ondoren, berriz ere laxoan

Aurtengo laxoa txapelketa irudi ikusgarriak eta ezusteko ederrak uzten ari da. Koteto Ezkurra erremontelari-jokoan ikusteko aukera izan da, baita Luismi Apezetxea donaztebarra ere. 15 urterekin txapeldun izan zen eta 32 urte ondoren, oraindik sasoiko dagoela erakutsi du.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko gorena
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



URROZ

GIZARTEA → APIRILETIK AZARORA

Leurtzako urtegietako denboraldia hasia da

Urte erdirako bi langile hartu dituzte eta auto bakoitzeko 3 euro ordaindu beharko da

Jaione ARIZTEGI

Antzineko alean erran bezala, dagoeneko hasia da Leurtzako urtegietako denboraldia. Urtero bezala, bi langile hartu dituzte aurtengoan. Bertze urteetan, txandaka egiten zuten lanaldi luzea eta laburra (sei hilabetekoa eta hirukoa), baina oraingoan bi langileei luzea egokitu zaie.

Urozkoa Mari Josek egingen du eta Beintza-Labaiengoa Iñigok. Apiriletik azarora bitarte arituko dira.

Horiez gain, pasa den urtean egin zen modu berean, herriarentzat hirugarren langile bat arituko da, eta lan hau Margaretzat izan da.

Aurreko urtean bezalaxe, aurtengoan ere 3 euro ordaindu beharko da urtegietara igotzen den auto bakoitzarengatik. Goiko argazkian ageri da Leurtzako urtegietako informazio etxolan egin behar da ordainketa eta bertan emanen dute informazioa ere.

Malerreka eguna maiatzaren 27an

Maiatzaren hondarreko larunbatekin Malerreka eguna ospatzen hasiak dira duela urte batzuk, eta aurtengoan Urrozen ospatuko da maiatzaren 27an. Hainbat ekitaldi izaten dira egun guztian zehar, eta dagoeneko hasiak dira bilerekin eta prestakuntzekin. Herriz herri ere mus txapelketak jokatzen hasiak dira, eta Urrozko ostatuan maiatzaren 12an jokatuko dute, final handirako txartel baten bila.



ARGAZKIA: JAIONE ARIZTEGI

Auzolanean pareta moldatua

Udaberriaren etorrerarekin batera, auzolanean dabilta herritarrek hondar aldi honetan. Hainbat lan egin dituzte, eta horietako bat, argazkian ageri den pareta dugu. Ikus daitekeen bezala, txukun gelditu da.

PARTE HARTU HYPER SIMPLYKO ZOKKETAN CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN ETA IRABAZI...



2
100 EUROKO 5
EROSKETA
TXARTEL*

1 HYUNDAI
I10 AUTOA



3
BERTAKO
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
3 SASKI



***ARROPA DENDAN ERABILTZEKO**

GIZARTEA → 183 BAZKIDE ARI DIRA IKASTAROETAN

Bi urteko balantze baikorra egin du zuzendaritza batzordeak

2.649 bazkide ditu elkarteak, iaz baino 80 gehiago

Fernando ETXEBERRIA

Ekainean bi urte beteko dira Arkupeak elkarteak zuzendaritza batzorde berria osatu zenetik eta denbora honen errepasoa egin eta agintaldian gelditzen den denborarako planak aurkeztu dituzte. Aipatzekoa da gaur egungo batzorde kide gehienak lehengoan ere hor zeudela, beraz, ez da aldaketa handiegirik izan.

Hasieratik lau batzordetan banatuak aritu dira: bidaia, ekonomia, ikastaroak eta mendi irteerak. Horietako bakoitzak arduradun bat dauka eta tarteka, presidenteari eta batzordeari aurkezten dizkio te beraien erabakiak, bertan eztabaidatzeko eta, normalean, ahobatez onartu daitezen.

Esaterako, bidaien batzordeko buruak proposamenak eskatzen dizkie bidai-agentzia ezberdinei, horiek aztertzen ditu aldagai ezberdinak kontuan hartuz eta gero batzordeko kideekin biltzen da, horiek aztertzeko. Zu -

zendaritza batzordearen bileran horren inguruko informazioa ematen da. Eta horrela egiten dute gainerako batzordeek ere, zuzendaritzak akordioak hartzeko. Zuzendaritza batzordea guttienez urtean lau aldiz biltzen da, eta interes orokorreko gairen bat dagoen bakoitzean. Delegatuen batzarra, berriz, urtean bitan biltzen da, gastuak, jarduerak, proiektuak eta egoera ekonomikoaz aritzeko. Bilera horietan ematen zaizkie sei hileko boletinak ere, beraien herrietan bana ditzaten.

Gaur egun herri guztiek badute ordezkari bana, Leitza, Donezteben eta Elizondon bina dituzte eta Beran hiru; Goizuetan, goizuetako ordezkariak Aranoko beste baten laguntza dauka.

EKONOMIA KONTUAK

120.000 euroko dirulaguntzak ere jaso ditu elkarteak. Krisiarekin, 20.000 euro jasotzen dira bakarrik Nafarroako Gobernutik eta Caja Navarra Fundaziotik. Horregatik, ekonomia batzordeak gerrikoa estutu behar izan du, defizitik izan ez dadin. Aurtun, suerte handia izan du Arkupeak elkarteak,



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Herrietako ordezkarien bilera eta Dantxarinean 294 bazkide bildu zituen bazkaria.

loteriak 20.000 euroko *oparia* ekarri baitu.

Bestetik, menpekotasun edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak artatzen dituen enpresa bat laguntzea garrantzitsutzat jo du zuzendaritza batzordeak eta horretarako, dirulaguntza eskatu dio La Caixari. Honek 8.000 euroko dirulaguntza eman dio. Orain, boluntario taldea martxan jarri beharko litzateke.

PARTE-HARTZEA GOITI

Aurtun, bidaietara joan diren bazkideen kopurua igo egin da eta aipagarriak dira Zarautz eta Aginagara (347 bazkide) eta Dantxarainera (294 bazkide) egin dako bidaietan bildu den jende kopurua. Portugaleko bidaiak ere au-

rreikuspen guztiak gainditu zituen. 70 leku aurreikusiak ziren, baina 181 bazkide apuntatu ziren. Hortaz, bidaia bi data ezberdinetan baturatu behar izan zen, ezinezkoa baitzen guztiak hotel berean hartzea.

Ikastaroek izan duten erantzuna ere handia izan da. Hamar ikastaro eskaintzen ari dira eta 183 bazkide ari dira zerbait ikasten. Informatikakoa da ikastarorik jendetsuena. Urrian bi solasaldi eskainiko dira, adinekoentzako elikadura egokiari buruzkoa eta iktusa aurreikuszeko ikastaroa.

Datorren urteari begira, ohiko bidaietaz gain, Frantziako Alpeetara eta Costa Azulera, Baleare Uharteetara, Italiara, Meditarreneko kru-

zeroa... egiteko asmoa dute. Bazkide batzuk San Petersburgora joatea ere eskatu dute, baina garesti ateratzen da. Hiru eguneko bidaiak ere antolatuko dira, zehazki Leon eta ingurura, Teruel eta Albarracín, Cuencara eta beste lekuren batera.

Gaur egun 2.649 bazkide ditu Arkupeak elkarteak, iaz baino 80 gehiago.

Datu hauek baikorak dira orokorrean, baina 2019ko ekainean berrituko den zuzendaritza batzordeak onartzen du akatsak ere badirela. Aldi berean, min ematen dieten modutxarrean eta errespeturik gabe egindako protestek: «Asko gara eta ezin da mundu guztia kontentu utzi».

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → OSTEGUN SANTUAN

Gaztain ximalak eskatuz ibili dira aurten ere neska-mutikoak

Aspaldiko ohitura bete dute Beintzako eta Labaiengo haurrek

TTIPI-TTAPA

Ostegun Santuan, urtekoko ohituari jarraituz, Beintza-Labaiengo haurtoak poz-pozik ari ziren *gaztain ximalak* biltzen etxez etxe. Bi auzotan ibili ziren bi talde-tan banatuak (Beintzan eta Labaienen), eta meza ondoren egin zuten

karrikarronda. Eskuetan karrakak hartu eta indar guztiarekin eraginez, aspaldiko urteetan kantatzen den bertsoa kantatuz:

Gaztain gaztain ximalak andreak elizera gizonak tabernera apeza txokoltea hartzera ta haurrak haurtara!!!

Ikusten den bezala, bizilagunek ilusio handiz entzuten dituzte bertsoak, eta haurrek oraindik ilusio handiagoz biltzen botatzen dizkieten goxo, intxaur eta sosak.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE ETA ARANTXA ITURRALDE
Beintzako eta Labaiengo haurrek, bakoitzak bere auzoan egin zuten eskea.

GIZARTEA

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREKIN BATERA

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abian jarri du UEMAK

TTIPI-TTAPA

2016ko errenta aitorpena egiteko kanpaina abiatu da, eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute abian aurten ere.

Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainarekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezzen bultzatu nahi dute kanpainaren antolatzaileek. Izan ere, errenta aitorpena euskaraz eginda,

administrazioaren euskaldun-tzea ere bultzatzen da.

Aurten ere, errentaren gaineko aitorpena egiterakoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta modu errazean gainera: lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukera dezakete, eta euskaraz egiteko ez dago aparteko zailtasunik.

AUTOLIKIDAZIOAK ERE EUSKARAZ

Herritarren gehiengo handi batek autolikidazio proposamena jasotzen du gaur



UTZITAKO ARGAZKIA

Kanpainarako erabiliko den irudia.

egun, hau da, errenta aitorpena egin hartzen dute etxean. Kasu horretan herritarrek, proposamen hori onartu egin behar du, eta hori telefonoz na-

hiz internetez egin dezake. Onarpen hori egiterakoan errenta aitorpena euskaraz nahi duela erratearekin hurrengoetan euskaraz jasoko du.

GIZARTEA → 2017 ETA 2018 URTEETAN

Mendialdean toki-garapenerako 41 proiektu martxan jartzea babestuko du Cederna-Garalurrek

Miloi bat euro baino gehiago inbertituko dute bi urtetan

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalur El-karteak jakitera eman du zein izanen diren 2017an eta 2018an bere toki-garapenerako estrategiaren barnean finantzatzeko diren proiektuak. Aurkeztutako 41 proiektuek 1.282.000 euroko inbertsioa izanen dute, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak, LGP 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren bitartez, batera finantzaturik.

Aurkeztutako proiektuetatik 10 tokiko enpresenak dira, eta 31 erakunde publikoenak. Udal-azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzea, edo ondarea zaintzeko ekimenekin batera. Azpimarratzekoak dira lehen sektoreko proiektu berritzaileak, bertzeak bertze Urraulbeitin hiri-baratzeen bidez enplegua sortzea, edo energia-sarea hobetzea eta Berako bero-sarea, nahiz Pirinioetan turismoa suspertzeko proposamen berriak egitea, bertzeak bertze *Wellingtonen ibilbidea* Auritzen, edo Beteluko harizti atlantikoari balioa ematea. Aurreiskuspenen arabera, proiektuen deialdi berria aurtengo bigarren seihilekoan irekiko da.

1/6
Zenbaki hau produktuen ariskuaren adierazlea da; 1/6 arisku txikiaren adierazlea da, eta 6/6, berriz, arisku handienarena.

Nafarroako Rural Kutxa atxikia dago Kreditu Entitateetako Gordailuak Bermatzeko Funtzari. Funtzak 100.000 eurora bitarteko diru gordailuak bermatzen ditu, titular bakoitzeko.

GUK NOMINARI NOMINA ESATEN DIOGU



Nafarroako Rural Kutxan izana duen orok du bere izena, asko izanagatik ere. Adibidez, **nomina gure zerbitzu berriaren abantaila bakoitzak badu bere izena**. Ikusi gure bulegoetan edo servicionomina.com webean zeinen erraza den abantaila horiek aprobetxatzea oraintxe bertan hasita. Bitartean, hementxe dituzu, bakoitza bere izenarekin:

cajaruraldenavarra.com/servicionomina

Nomina kontua mantentze eta administrazio komisiorik gabe

OE komisioetan SEPA Europa transferentzietan, urrutiko banka bidez

OE komisioetan SEPA Europako aldiaren behingo transferentzietan

OE komisioetan txke nazionalak eurotan sartzean

OE komisioetan taloitegiak eurotan jaulkitzean

Alerta zerbitzua doan, Ruralvia ko App-aren bidez

Nomina Aurreratzea interesik eta komisiorik gabe 3.000 €-ra bitarte **UTBa % 0**

6.000 €-ra bitarteko mailegua **UTBa % 6,94** (edo 3 nomina) 10 hilera interesik gabe

ADIBIDEA: 10.000€-ko MAILEGUA 10 HILABETEKO EFAN TIN 1% PERKEHA KONTAKO 100 LITROKOS 100€-ko KONTA 270256€ BEZTERAKO GUTITRA 10254300€-ko ZENBATEKOA IZANDU LUKE ZORRETAN

10 nominara bitarteko mailegua epeka 48 hilera bitarte, irekiera komisiorik gabe **UTBa: % 5,12**

ADIBIDEA: 10.000€-ko MAILEGUA 48 HILABETEKO EFAN TIN 1% PERKEHA KONTAKO 100 LITROKOS 100€-ko KONTA 270256€ BEZTERAKO GUTITRA 10254300€-ko ZENBATEKOA IZANDU LUKE ZORRETAN

Doan tramitatzen dugu ordainagiriaren helbideratze aldaketa

% 10eko deskontua lehen urteko prima garbian eta poliza berrietan, Etxe, Bizi eta istripu Aseguruetan*

Doako zerbitzua urrutiko bankan: Ruralvia

Doako zerbitzua banku korrespondentzian: Infomail

Nafarroako Rural Kutxak nomina zerbitzua izateko baldintzak betetzen dituztenentzat, hoberi baldintzak aplikatuko dira aipatu baldintzak betetzen diren hiru garren hilek aurrera. • Hoberien gaineko baldintzak, halaber, aplikatuko zaizkie langabezia-prestatzaia Rural Kutxan helbideratze duten bezeroei, baldin eta zenbateko garbia gurekin 400 € bada hileko. • Zerbitzu honek izateko baldintzak betetzen ez dituzten bezeroei bestelako komisioak aplikatuko zaizkie; hala, komunikazio honetan azalduko produktu eta zerbitzuetan Rural Kutxak finkaturiko komisio estandarrek. • ETXE ETA ISTRIPIAK: Aseguruen eta Berraseguruen RGA Seguros Generales Rural, S.A.ekin dago poliza kontratua. Helbidea: Basauri K. 14, 28023 Madrid. I.F.K.: A-78/524683. Merk. Erreg. Madrid, Liburukia: 7915, Orokorra: 6858, Atala: 3, Folioa: 61. Orria: M-10188, I.F.K.: A-79490264. Rural Kutxak Operadorearen banaketa sare gisa dihardu. • BEZT ASEGURUA: Aseguruen eta Berraseguruen RGA Seguros Generales Rural, S.A.ekin dago poliza kontratua. Helbidea: Basauri K. 14, 28023 Madrid. I.F.K.: A-78/524683. Merk. Erreg. Madrid, Liburukia: 7915, Orokorra: 6858, Atala: 3, Folioa: 61. Orria: M-10188, I.F.K.: A-79490264. Rural Kutxak Operadorearen banaketa sare gisa dihardu. • RGA Mediación Operador de Banca-Seguros Vinculado etxearen bidez, Aseguruen Zuzendaritza Orokorren enregistraioan OV-0006nkin inskribatua. Merk. Erreg. Madrid, Liburukia: 8205, Folioa: 89, Atala: 8, Orria: M-10188, I.F.K.: A-79490264. Rural Kutxak Operadorearen banaketa sare gisa dihardu.



Patxi CASTILLO GRAZIARENA | Bortzirietako Eman Bortzekoa Elkarte

«Pisuzko erabakiak herriak hartu behar ditu»

E. IRAOLA eta G. PIKABEA

Bide luzea egin du Gure Esku Dagok 2014ko giza-kateaz geroztik. Eta orain, herri-galdeketen txanda da. Ekainaren 18an eskualdeko bederatzia herrian eginen dituzte galdeketa: Arano, Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta, Igantzi, Leitza eta Lesaka. Patxi Castillo Graziarena Bortzirietako Eman Bortzekoa Elkarteko kidea da eta Alaitz Eskudero Bergara Mendialdeko Gure Esku Dago Elkartekoa eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete. **Nolako balorazioa eginen zenukete orain arteko ibilbideaz? Nola begiratzen diozue ekainaren 18ari?**

Patxi CASTILLO: Balorazio ona eginen nuke. Gero eta jende gehiago gara, eta giro gehiago ere somatzen da, batez ere herri tikiagoetan. Beti bada enteratzen ez den jendea, kasu sobera egiten ez duena edo berte saltsatan ibiltzen dena, baina azken aldian egin ditu gun ekimenetan, espero

ez genuen jendea mugitu dela ikusi dugu.

Alaitz ESKUDERO: Giza katea, oihalak ehuntzea... Orain erronka berri baten aurrean gaude, eta itxaropentsu gaude. Izan ere, Herri Galdeketa egin ahal izateko sinadura kopurua bikoiztu dugu Mendialdean. Horrek babes zabala dugula erakusten digu, eta beraz, seguru gaude ekainaren 18a egun ahaztezina izanen dela.

P. C.: Gu ere itxaropentsu eta ilusioarekin gaude, baina erronka bat ere bada. Oraindik ere badugu denbora, eta ukitu ez dugun jende horrengana joan behar dugu, bai ekitaldietan eta bai intimitatean ere. Ekainaren 18a osasuntsuago ailegatzea da erronka.

Sentsibilitate desberdineko herritarrengana iristea duzue helburu. Lortzen ari zarete?

A. E.: Bai, 2014ko giza katean eta oihalak ehuntzeko ekimenetan ere sentitu genuen sentsibilitate desberdinetako jendea hurbildu zela, ezin



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Patxi Castillo beratarra Eman Bortzekoa Elkarteko kideetako bat da.

ikusiak alde batera utzita. Ilusioa ikusi zen, hemen herri bat dagoenaren sentimendua. Orain, sentimendu eta ilusio hori guztia ekainaren 18an hautestontzietan sartzeko ardua hartu dugu. Ekitaldi desberdinen bidez, jendea ekainaren 18ko galdeketa garrantziaz ohartzen ari da, ilusioa pizten ari da. Dena den, hurrengo hilabeteetako ekimenak izanen dira benetan indarra emanen diotenak herri galdeketa. Beraz, herritarrak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera eta erabakitzeko eskubidearen eztabaida beraien inguruan zabaltzera.

P. C.: Puska batean gu ere lortzen ari gara, herri tikietan errazago. Baina ez da ailegatzea bakarrik, jendeak kontzientziatu ere egin behar du. Espere ez genuen aunitzek ba-

«Hau ez da Gure Esku Dagoren helburua bakarrik, ezta aunitzek pentsatzen duten bezala abertzaleen kontua ere. Helburua herriarena da».

dakite galdeketa bat antolatzen ari garela. Baina jendeak ulertu behar du garrantzitsua dela parte hartzea. Oraindik aunitzek galdetzen dute zertarako balio duen galdeketa. Berez, galdeketa horrek zuzenean ez du eraginen, baina helburu haundiak lortzeko lehenagotik helburu tiki batzuk lortu behar dira. Eta helburu tiki batzuk aipatzen hasita, hor dugu Deba goienako kasua. Herri galdeketa ondotik, hainbat udalek parte hartzearen inguruko ordenantza bat berritu dute,

eta urteroko aurrekontuaren zati bat herritarrek erabakitzen dute plenotik pasatu gabe, hori delako erabakitzeko eskubidea. **Herritarrek parte hartzea nahi duzue. Berdin dio baiezkoa ala ezezkoa nagusitzeak?**

P. C.: Bai, bai, berdin dio. Galdera erabakitzeko prozesuan gaude, baina galdera dena delakoa ere, berdin dio baiezkoak, ezezkoak, zurian bozkatura, baliogabeak... Helburua garbi dugu: jendeak parte hartzea, solastea eta erabakitzea.

A. E.: Norberak askatasun osoz emanen du bere erantzuna. Helburu nagusia ahalik eta jende gehienak parte hartzea da. Sentsibilitate desberdinetako jendeak herri honen etorkizunaren inguruan hausnarketa egin eta erabakitzeko aukera izan dezala. Baiezko nahiz eze-

EMAN BORTZEOA ELKARTEA HURRENGO HITZORDUAK

- **Maiatzaren 5ean eta 6an:** bideokliparen aurkezpena herriz-herri.
- **Maiatzean:** maiatz hasierarako adostuko dute galdera. Horrez gain, hainbat ekimen eginen dituzte herriz-herri: Arantzan argazki jendetsua, Igantzin aurkezpena, Lesakan *mannequin challenge*, hitzaldia Beran...
- **Ekainean:** eskualde mailako mosaikoa Beran eta Beti-Gazte eta Gure Txokoaren arteko futbol derbia.

Alaitz ESKUDERO BERGARA | Mendialdeko Gure Esku Dago Elkartea

«Helburua ahalik eta jende gehienak parte hartzea da»



UTZITAKO ARGAZKIA

Alaitz Eskudero goizuetarra Mendialdeko Gure Esku Dago elkarteko kideetako bat da.

ko bozka ematen duena, erabakitzen ari da, eta horrek gizartea aberastu egiten du. Ez dugu zifra konkreturik helburutzat, prozesua baita gehien inporta zaiguna: erabakitze eskubidearen inguruko eztabaida kalean egotea, jendea aktibatzea... eta Nafarroako milaka herritarrek, lehenengo aldiz, normaltasun osoz eta istilurik gabe, berme guztiakin bozkatzea.

Zergatik bozkatu behar dute herritarrek?

P.C.: Beraien hitza, aho-itsa adituarazi nahi badute ez dago bertze modurik, eta modu legala da. Etorkizunean, eta espero dugu etorkizun hurbilean izatea, udaletan, eskualdeka, herrialdetan, estatu mailan, galdeketa lotesle batzuk egitea. Ez da ezinezkoa. Suitzan, lau urtean behin eguneroko gestioaz arduratzeko Go-

«Ez dugu zifra konkreturik helburutzat. Baiezko nahiz ezezko bozka ematen duena, erabakitzen ari da, eta horrek gizartea aberastu egiten du».

bernua aukeratzen dute. Baina garrantzitsuak diren gaiak herritarrek erabakitzen dituzte boto bidez. Guk ere ez dugu nahi gure etorkizuna guztiz baldintzatuko duten erabakiak herri mailan bortz, zazpi edo hamaika lagunek edo estatu mailan 350 pertsonen erabakitzea. Pisuzko erabakiak herriak hartu behar ditu.

A.E.: Orain arte herritarrok ez dugu gure herriaren etorkizunaz demokratikoki erabakitzeko aukerarik izan, eta gainera, horretarako eskubiderik ez dugula sinestarazi na-

hi izan digute. Nafarroko historian lehen aldiz izanen dugu gure estatusari buruz erabakitzeko aukera, eta hiru eskualde handi izanen gara aitzindari. Horrek duen balioaz ohartu behar dugu. Gainera, guk erabakitzen ez badugu, beste batzuk eginen dute gure partez. **Zergatik da garrantzitsua galdeketa hauek orain egitea?**

P.C.: Zenbat eta lehenago hasi galdeketak egiten, orduan eta lehenago hasiko gara guri begira dauden instituzio horiei indarra egiten, eta lehenago aldatuko dira gauzak. Ezin dugu bertze inork guregatik gauzak egiteko esperoan egon, guk egin behar dugurea. Ez badugu deus ere egiten, ez da deus ere aldatuko.

A.E.: Momentu historikoa da hau. Alde batetik,

Ipar Euskal Herriko hiru probintziak elkarrekin pausoak ematen hasiak dira. Bestetik, Hegoaldeko bi instituzioetan erabakitze eskubidearen aldeko joerak ditugu. Herrien erabakitzeko eskubidearen praktika pil-pilean dago Europan. Zergatik Euskal Herrian ez? Behingoz, Euskal Herriko herri guztiak hasiak gara noranzko berean arraun egiten, hortaz, aukera hau aprobetxatu beharra dago.

Galdeketa eta gero zer?

P.C.: Herri elkarte bezala, Eman Bortzekoa elkarteak segitzeko bidea badu, herritarren hitza adituarazten duen elkarte izanik, orain arteko helburu berdinekin. Horrez gain, ezin dugu ahantzi, gureak izanen direla, Mendialdea, Sakana, Basaburua eta Imotzekin batera, Nafarroako lehenbiziko galdeketak, eta guri begira bertze hainbat nafar egonen direla. Gai izan behar dugu behar dituzten erreminta eta laguntza guztiak emateko, galdeketen olatu honek Nafarroa guztia busti dezan.

A.E.: Anbizioz eta ilusioz lan egiten segituko dugu, izan ere, oraindik galdeketa gehiago iritsiko dira, hiriburuetara adibidez. Horrez gain, ekainean Herritarron Ituna aurkeztuko da: erabakitzeko eskubidearen alde sortzen ari diren forma eta eduki anitzeko adierazpen guztiak bilduko dituen ituna. Itun demokratikoa, gure erakunde eta eragileekin elkarlanean. Erabaki oro herritarren esku jartzea da helburua. Beraz, galdeketak eta gero ere Gure Esku Dagok lanean segiko du. **Zerbait gaineratuko zenukete?**

P.C.: Bozkatzeko gonbitea luzatuko nieke herritarrei, zenbat eta jende gehiagok bozkatu, herriarentzat hobe izanen baita. Hau ez da Gure Esku Dagoren helburua bakarrik, ezta aunitzek pentsatzen duten bezala aberztaleen kontua ere. Helburua herriarena da, ezker-eskuin, zahar eta gazte, neska eta mutil, arraza guztikoena... Denok osatzen dugu herria.

MENDIALDEKO GURE ESKU DAGOREN HITZORDUAK

- **Maiatzean:** abestia eta bideoklipa grabatuko dute.
- **Maiatzaren 7an, Areson:** Gure Esku Dago besta: 08:30ean mendi buelta, haurrentzat jolasak, Gure Esku Dago dantza eta bazkaria musikarekin.
- **Maiatzaren 18an, Leitza:** 19:00etan Zineman mahai-ingurua.
- **Maiatzaren 20an, Leitza:** Gure Esku Dago besta.

ARESO

OSPAKIZUNA → MAIATZEKO LEHENBIZIKO IGANDEAN

Gure Esku Dagok pesta antolatu du maiatzaren 7rako

Mendi ibilaldia, jokoak, dantza eta bazkaria izango dira

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren 18a data seinalatua izango da gurean. Gure Esku Dagok antolatuta, herri-galdeketa egingo baita. Herri-tarrak aspaldian hasi ziren ekimena antolatze-ko lanean eta galdeketa egiteko beharrezko sinadura kopurua lortu ondoren, (gutxieneko kopurua bikoiztu egin da Mendialdean) galdera erabakitze-ko batzar irekia egin zen apirilaren 21ean. Herritar talde polita bildu zen eta gaiaren inguruan hitz egiten aritu ondoren, denen artean, maiatzaren 5ean Lekunberrin egitekoa den batzarrerako proposamenak bildu zituzten.

EGUN OSOKO PESTA

Giroa berotzen joateko, pesta ere antolatu dute maiatzaren 7rako. Goizean pare bat orduko mendi buelta egiteko aukera izango da, 08:30ean abiatuta. 11:00etan umeentzako jolasak antolatu dituzte eta bazkalarean Gure Esku Dago abestia-ekin dantzan aritzeko gonbidapena luzatu dute. Ondoren bazkaria izango da (eguraldi ona bada plazan) eta bazkalondoa kantaldia. Bazkarirako izen-ematea Sastinea tabernan egin daiteke maiatzaren 5era arte.




ARGAZKIA: ENERITZ AGIRRE

Apirilaren 21ean, batzar irekia egin zen ekainaren 18ko galdera erabakitze-ko.

Interes handia piztu du administrari lanpostuak

Apirilaren 25ean egin zen administrari lanposturako froga eta handia izan zen bildutako eskaera kopurua. Hogeita bat pertsonak emana zuten izena eta azkenean, hamabik egin zuten azterketa. Proba eginda, datozen asteetan jakinaraziko dituzte emaitzak.



MAIATZAREN 5ERA ARTE

Sutarako egur loteetan izena emateko epea zabalik

Juana Mari SAIZAR

Udalak sutarako egur lotea eskatzeko epea ireki du. Maiatzaren 5era arte egin daiteke eskaera eta orain arte bezala, 5 tonako loteak izango dira. Interesa dutenek egurra eskuratzeko hiru modu izanzen dituzte aukeran. Lotea etxera eramatea nahi dutenek 180 euro ordaindu beharko dituzte. Lotea pistan jaso nahi dutenek 80 euro eta lotea zutik jaso nahi dutenek 45 euro. Eskaerak jaso ondoren, loteen zozketa egingo dute.

PLAZAOLA

Uitziko tunela itxita dago, irekitzeko data zehatzik gabe

TTIPI-TTAPA

Urtarrilean urak sortutako kalteak pentsatutakoa baino handiagoak direla erakutsi dute berriki egindako azterketa batzuek. Drainatze-sistema osoa oztopatuta dago eta, kasu askotan, baita apurtuta ere (kontuan izan behar da tunelak ia 3 kilometroko luzera daukala). Honetaz gain, toki zehatz batzuetan etengabeko ur-sartzeak ere badaude. Hori dela eta, konponketa sakonago bat egitea beharrezkoa izango da.

Drainatze egokia bermatzen duen sistema jarriko dute eta bide-zorua hondatzen duten ur-sartzeen eragina ahalik eta gehien gutxitzen duena. Konponketa hau garestia da eta denbora eta baliabide ekonomikoak beharrezkoak izango dira. Hori dela eta, ezin da zehaztu lanak noiz egingen dituzten, ezta tunela berriro ere noiz irekiko duten. Gainera, lanen prozedura ere ez da erraza.

Plazaola Partzuergoak konponketa lanak «ahalik eta azkarren» egiteko ahalegina egingen dutela adierazi dute. Eta hori horrela izan dadin, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri dira baliabideak eta babesa lortzeko eta Ederbidea proiektuaren inguruan ere konponbideak baliatzen ari dira.

FLASH

‘Piedras con alma’ liburuen aurkezpena

Alkozko bordan bizi den Bakartxo Aniz argazkilaria *Piedras con alma* liburua aurkeztuko du maiatzaren 12an, 19:00etan Udaletxean. Lau urtez Aragoiko Pirinioan barna, hutsik dauden herrietan atera dituen argazkiak bildu ditu liburuan.

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 5 ETA 6AN

Txinoko festak ospatuko dituzte asteburuan

Ostiralean, Soto, Mendiluze eta Legarreta bertsolariak ariko dira eta mus txapelketa jokatu dute Zubiondon

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, maiatzeko lehenbiziko asteburuan zubiz bestaldera dagoen Txino auzoko festak izango dituzte hamalagarren urtez Goizuetan, Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Guraso Elkarteak, Zubiondok, Umore Onak eta Udalak antolatuta.

Maiatzaren 5ean, ostiralean Julio Soto, Ai-

tor Mendiluze eta Xabier Legarreta bertsolariak emango diete hasiera festei 20:00etan, Zubiondo tabernako ohiko bertso saioarekin. Gauean 22:00etan Mus txapelketa jokatu da taberna berean.

Larunbatean, maiatzak 6, 11:00etan haur eta gaztetxoek krosa egingen dute. Ondoren, txupinazoa eta dragoia aterako da giroa alaitzera, trikitilariarekin batera. Segidan, sokatira saioa egingen dute Txino auzoko eta herriko ordezkariak, nor baino nor gehiagoka. 14:30ean herri bazkaria izango da Goiko Frontoian.

Arratsaldeko 6etan break dance ikuskizuna izanen da eta gero, trikitilariak arduratuko dira giroa alaitzeaz. Gauez, musika izanen da bajeran.



ARGAZKIA: UMORE ONA ELKARTEA

Goizueta ezagutzen mendi ateraldia Umore Onaren eskutik

Hamalau lagun bildu ziren apirilaren 23an Umore Ona elkarteak antolatutako Goizueta ezagutzen mendi bueltan. Eguraldia lagun zutela giro paregabea egin zuten mendi itzulia. Umore Ona elkarteak, pilota gozo txapelketa azkarra ere antolatu du maiatzaren 13rako, arratsaldeko 4:30ean.

ALOKATZEKO ETA SALTZEKO DAUDENAK AGERI DIRA UDAL WEBGUNEAN

Etxebizitza eta lokalei buruzko atal berria

TTIPI-TTAPA

Udalak Goizuetan alokatzeko eta saltzeko dauden etxebizitza eta lokalei buruzko atal berria sortu du.

Etxebizitza Batzordeak hasi zuen *Etxebizitza beharrei eta eskaerei buruzko inkesta* lanaren emaitza da atal hau. Herrian etxebizitzak eta lokalak eskuratzeko dagoen interesa eta beharra ikusita, Udalak, www.goizueta.eus webguneko atal berri hau sortu du Goizuetan alokatu eta saltzeko dauden etxebizitza eta lokalei buruzko informazioa argitaratu eta interesa duen orok eskuragarri izateko.

Udalaren asmoa etxebizitza edota lokala alokatu edota saldu nahi dutenen eta erosi edota alokatu na-

hi dutenen arteko zubi lana egitea da eta herritarren interesak asetzeko aldera, zerbitzu hau ahalik eta osatuena edukitzea.

Eskaintza zabala izan dadin, hemen dagoen informazioa aldagarria izango da eta etxebizitza edota lokal bat eskaintzan jartzeko interesa duen edonork edozein momentutan izango du horretarako aukera.

Goizuetan hutsa duzun, erabiltzen ez duzun edota behar ez duzun etxe edo lokal baten jabe bazara, eta erabiltzeko interesa duen norbaiti alokatu edo saldu nahi badiozu, idatzi etxebizitzabatzordea@gmail.com helbidera edo jarri zuzenean Udalarekin harremanetan.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badago

**BETIKOn LEIHOAK
NEURTU, FABRIKATU eta
INSTALATZEN DITUGU**



**PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

A+++

* 70 mm

LEITZA

KULTURA → KULTUR TALDEAK AUZOLANEAN ANTOLATUA

Ekitaldiz gainezka heldu da Kultur Aroaren 40. edizioa

Maitzaren 12tik
ekainaren 17ra

JM BARRIOLA

Datozen asteetan kulturaz gozatu nahi duenak izanen du aukera, 40. urtez Kultur Aroa antolatu baita. 1978. urtean hasi ziren herrian kulturastea antolatzen ikastolaren inguruan zebiltzan irakasle eta guraso batzuk eta geroztik herriar asko aritu dira Leitzako Kultur Taldean, auzolanean, kultur ekimenak antolatzen. Maiatzaren 12an hasi eta ekainaren 17ra arte luzatuko da Kultur Aroa eta ohikoa denez, hitzaldiak, musika, erakusketak, liburu aurkezpenak... denetarik izanen da. Kultur Aroari hasiera emateko **maiatzaren 12an** herriko Katez taldeak kon-



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Herriko Katez taldeko musikarien kontzertuarekin abiatuko da Kultur Aroa.

tzertua eskainiko du 23:00etan Atekabeltzen. **Maiatzaren 14an** Nafarroako esku-pilota izanen da protagonista zinemaren eginen duten ekitaldian. **Maiatzaren 15ean**, berri, Himalaia-aren inguruko emanaldia izanen da zinemaren eta **maiatzaren 16an** Nafarroako Foruen inguruko hitzaldia udaletxean.

Maiatzaren 17an zinemaren 18:00etan dantza moderno saioa eskainiko dute. **Maiatzaren 18an** Gure Esku Dagok antolatuta, mahai-in-

guruia izanen da zinemaren 19:00etan. Hurrengo aldizkarian izanen duzue ekainaren 17ra bitarteko ekitaldi guztien berri.

Ba al zenekien

Amazabal DBHko 3. mailako ikasleek Gozamenek lehiaketan parte hartu dutela. Beraien film laburraren aldeko botoa maiatzaren 5era arte eman liteke www.gozamenez.com helbidean.



FLASH

Hiru langile kontratatu ditu Udalak

Udalak aldi baterako eta E mailako izaerarekin, funtzio anitzak betetzeko 3 langile kontratatu ditu. Maiatzean hasi eta 6 hilabetez ariko dira lanean. Azterketetan puntuazio altuena lortu zutenak Egoitz Astibia, Jose Fermin Lizarraga eta Jose Rafael Vega izan ziren.

Atekabeltzen film laburren lehiaketa

Zazpigarrenez antolatu dute film laburren lehiaketa Atekabeltzen. Gehienez 15 minutuko lanak aurkez daitezke eta lan guztietan Ateka eta 12 kontzeptuek agertu beharko dute. Maiatzaren 19an izanen da lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia eta sari banaketa. Lanak egunean bertan aurkez daitezke edo aurretik atekabeltz@gmail.com helbidera bidali.

ESKAERAK MAIATZAREN 15A BAINO LEHEN AURKEZTU BEHAR DIRA

Udan igerilekuko taberna kudeatzeko lehiaketa ireki du Udalak

TTIPI-TTAPA

Udan udal igerilekuko taberna kudeatzeko kontzesiorako lehiaketa ireki du Udalak. Denboraldia ekainaren 17an hasi eta irailaren 17an bukatuko da eta alokairuaren prezioa hilean 300 eurokoa izanen da. Tabernaren ordutegia honakoa izanen da: astelehenetik ostegunera 10:00etatik 20:00etara eta ostiralek igandera 10:00etatik 00:00etara.

Eskaerak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan astelehenetik ostiralerara 09:00etatik 13:00etara. N.A.N agiriaren fotokopia eta errolda agiria, Curriculum eta tabernako kudeaketaren inguruko proposamena eta proiektu teknikoak aurkeztu beharko di-

tuzte (gehienez lau orrialde). Lehiaketan kontuan izanen dute eskatzaileak Leitzan erroldatuta egotea, antzeko lanetan aurretiako esperientzia izatea eta aurkeztutako proiektua. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa da. Informazio gehiago leitza.eus helbidean edo Udaletxean jaso liteke.

HIRU LANGILE IGERILEKURAKO

Horretaz gain, igerilekuan sorosle lanak egiteko bi pertsona eta lan antzeturako beste bat kontratatuko ditu Anikote udal enpresak. Maiatzaren 2ra arteko epea zegoen izena emateko eta orain interesa agertu dutenen artean azterketak egiten ari dira. Ekainetik irailera arte eman beharko dute zerbitzua.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Oier Gomezen aldeko ekimenak

Oier Gomez gaixo dagoen preso politiko gasteiztarraren osasun egoera larria salatu eta bere askatasuna eskatzeko hainbat ekimen egin zituzten apirilean. Informazio saioak, 'Desobedientzia, elkar-tasunetik konpromisora' dokumentalaren emanaldia... izan ziren eta eta Marilo Gorostiaga eta Fernando Arburuak espetxetako egoeraren inguruan hitzaldia ere eskaini zuten. Horretaz gain, herriko plazan kanpaldi bat ere egin zuten.

HIRIGINTZA → UDAKO DENBORALDIRAKO IREKIKO DUTE

Herriko informazio puntua berritzeko lanekin hasi dira

Herritarrek bozkatu zuten gustukoaren zuten proiektua

JM BARRIOLA

Turismo mahaia egi-ten dituen bileretan ager-
tu zen informazio pun-
tua berritzeko premiari
erantzunez, egitasmoa
marxan jarri zuen Uda-
lak. Informazio puntua
berritzeko hamar propo-
samen bildu zituzten eta
horien artean, herritarrek
gustukoaren zuten proie-
ktua bozkatzeko aukera

izan zuten. Ione Pastor
eta Lucía Rodríguez
ikasleek egindakoa izan
zen bozka gehien jaso
zituena: informazio pun-
tua barrualdetik egurrez
apaintzeko proiektua,
alegia.

PROIEKTU INTEGRALA

Egileen hitzen arabe-
ra: «proiektu integrala
izanen da bertako ma-
terialak erabiliz burutu-
ko dena». Natura gertu
sentitu eta jendea ero-
so hartzeko lekua sortu
nahi izan dute. Bestela-
ko gaitasun fisiko eta psi-
kikoak izan ditzaketen



ARGAZKIA: UDALA

Informazio bulegoak barruko aldetik izanen duen itxura berria.

pertsonak ere kontuan
hartu nahi izan ditu Tu-
rismo Mahaia. Hori de-

la eta aditu desberdine-
kin lanean ari dira.
Aste Santu ondoren

hasi zituzten lanak eta
udarako bukatzea au-
reikusten dute.



LEITZALDEA

TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probestu aukerak!

Aritzela DEKORAZIO TALERRA %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11	edr^{igunea} %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM marken ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	ETXE TRESNAK S.L %10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	FISIOETXEA Ane Egizabal Llata Fisioterapeuta %10 DESKONTUA hamar saioko bonoan Uharte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	Garbi drogeria - lurrindegia %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73
gatzelu sol iturgintza %15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	HERNANDORENA ALUMINIO, BERRIKATZETAK, BERRIKATZETAK, BERRIKATZETAK %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55	KAPRITXO %5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	KU-LUN KJ %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Uharte Gotzaina, 1- beheka 4 LEITZA T. 948 51 36 20	Leitza OGI BERRI Kafetegi Okindegia %5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74
LEITZAHIROLAK %5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76	MAIMUR %10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	Olaia Bazar %10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA esketan Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58	Argazki Argazkiak %5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 21EAN ELIZONDON

Ahari onenak saritu dituzte eta urteko gasna moztu dute Udaberriko Ferian

Arraiozko
Sagrario
Urrozek eta
Almandozko
Begoña
Etxalarrek lortu
zituzten lehen
sariak eta
Etxetxipiko
Maria Jesus
Larretxeak
moztu zuen
urteko gasna

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Udaberriko Feria egunean, ahari lehiaketaren hemeretzigarren edizioa burutu zen apirilaren 21ean. Azken bi urteetan bezala, Arraiozko Xuntenera eta Almandozko Etxotora joan dira aurten ere sari nagusiak. Ahari lehiaketaz gain, urteko gasnari lehen korea ere eman zioten.

Ahari lehiaketaren hemeretzigarren edizioari dagokionez, azken urteetan baino buru gutxiago aurkeztu ziren, baina kalitate onekoak. Burugorrien artean, lehenbiziko saria (75 euro eta Santiago Oteiza erratzuarrak egindako kaikua) Arraiozko

Xuntenera Sagrario Urrozentzat izan zen, bigarrena (50 euro) Arraiozko Indakoako Felisa Ugarterentzat, eta hirugarrena (30 euro) Arizkungo Plazaburuko Jose Mari Gamioentzat.

Burubeltzen artean, lehenbiziko saria Almandozko Begoña Etxalarrek eraman zuen, eta bigarren eta hirugarren sariak Irurritako Gernuxarreko Migel Angel Maritorenak.

Epaimahaia, Gartzaringo Maitoneko Federico Etxenikek, Juan Kruz Iriarte zinegotziak, Cederna-Garalurreko Marian Zestau teknikariak, Beartzungo Pardioleneko Manuel Bertizek eta Irurritako Zaldu-biko Joseba Zelaia-tak osatu zuten.

EKITALDI AUNITZ

Aziendez gain, eskulangileen erakusketa eta salmenta, txistulariak, haurrendako tailerrak eta Baztango dantzari ttikien saioak izan ziren, baita bertako produktuek dastatzeko aukera ere, aurtengoan goizez bakarrik egin den urteko lehen feria egunean. Gainera, urteko lehen gasnaren mozketa ere egin zuten. Aurtengoan, Elizondoko Etxetxipiako Maria Jesus Larretxeak egin zuen.



**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE**
abokatua



Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Ahari lehiaketan saritutakoak, M^a Jesus Larretxea gasna moztu eta plazako giroa.

GIZARTEA → PROIEKTUAREN AURREKO AZTERLAN GEOTEKNIKOAREN KONTRATAZIOA BAIMENDU DU NAFARROAKO GOBERNUAK

Belate eta Almandozko tunelak eraberritzeko lehen urratsa eman dute

Presazkotzat jo dute lan horiek eragindako ondasunen eta eskubideen okupazioa


TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak, apirilaren 12ko saioan, Belate eta Almandozko tunelak eraberritzeko proiektuaren aitzinetik egin beharreko azterlan geoteknikoaren kontratazioa baimentzen duen erabakia hartu zuen. Kontratazio horren zenbatekoa 1.524.202 eurokoa da. Proiektu horretan sartzen da ingurumenarekiko afekzioen azterlana, ingurumen-balio bereziko zonan egingo baitira lanok.

Gainera, Gobernuak presazkotzat jo du lan horiek eragindako ondasunen eta eskubideen okupazioa, 58.500 euroko aurrekontua duena.

Azterlan geotekniko eta geologiko horren barrenean sartzen da lursail osoa aztertzea, lurzoruko laginak hartu eta haren ezaugarriak aztertuta, bai eta analisiaren xede diren lekuek iristeko bideak eta sarbideak eraikitzea ere.

Azterlanaren emaitzak baliozkoak izanen dira tunelak eraberritzeko erabakitzen den aukera bietako edozeinetarako: hau da, errepidea bikoitzeko, edo ebakuaziorako segurtasun-galeria bat erai-



UTZITAKO ARGAZKIA

N-121-A errepidea 2+1 galtzada bihurtzeko baimena eman dute

N-121A errepidea (Iruña-Behobia) 2+1 deritzon errepide bihurtzeko proiektuak idazteko zerbitzua kontratatzeke 530.000 euroko gastua baimendu du Nafarroako Gobernuak apirilaren 5eko saioan; hau da, norabide bikoitzeko galtzada bakoitzeko azpiegitura, hiru errai erabilgarriekin, horietako bat erdian, txandaka, norabide bietako bakoitzerako erabiliko dena. Horretaz gain, bidegurutzeak aldatuko dituzte, mugimenduak seguruagoak izan daitezzen, tarte ezberdinen abiadura-mugak homogeneizatu eta bide, etxebizitza, pabilioi eta zerbitzu-guneetatik N-121 A errepiderako sarbideak berrantolatuko dituzte.

kitzeko; helburua da tuteleki europar araudia betetzea.

Proiektuak zortzi bat hilabete iraupena izanen du; lehenengo lau hilabeteetan landa-lana egingen da, ahal dela udan, eta gainerako lau hilabeteetan laborategian eta emaitzak eskuratzeko egingen dute lan.

Jarduketa ez da gaur egungo errepidean egingen, lanek ez diote eraginen, errepidearen inguruetan egingen diren lan geotekniko zehatzak salbu.

LAN GEOLOGIKO ETA GEOTEKNIKOEN EDUKIA

Azterlan geoteknikoaren barrenean, zundaketak, laginketak, profil sismikoak... egi-

nen dituzte. 3.228 metro lineal zulatzea aurreikusten da. Zona topografikoki konplexua denez eta ingurumen-balioa duenez, beharrezkoa izan da azterketa-guneetarako iristeko bideak definitzea. N-121-A errepidetik egingen dira sarbideok, daudden bideak erabilita, edo bide eta plataforma berrietatik. Guztira, 23 bide berri egitea aurreikusten da, guztira 5.628 metro luze dutenak, 3 metroko zabalerako plataformarekin, gehi bihurtze-guneetan behar den zabalera gehigarriarekin. Kasurik gehienetan, bide bakoitzaren amaieran 7x3 m-ko plataforma bat egokitu beharra egon da, makinaria

jartzeko eta biratzeko maniobretarako.

Jarduketa-eremuak duen ingurumen-balioa dela eta, nahitaez bete beharreko prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak hartuko dira lanek irauten duten bitartean. Era horretan, sarbideak naturan eta paisaian ongi egokitzea lortu nahi da, bai landa-lanek irauten duten bitartean, baita akitu ondoren ere. Neurri horiek landarediari, faunari, paisaiari eta hidrologiari dagozkie. Neurri nagusia da irekitako sarbideak birnaturalizatzea aurreikusten duena; hau da, bidearen trazatuaren aurretik lursailak ziztuen profilak ahalik eta gehien lehengoratzea.

75. URTEURRENA

Zuzeneko diska grabatu du Elizondoko Abesbatzak

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Abesbatza aurtan bere 75. urteurrena ospatzen ari da eta ekitaldi ezberdinak burutzen ari da horren data garrantzitsua behar bezala ospatzeko. Hurrengo asteetan honako hauek dira nabarmentenak: Haur-gazte kantarien topaketa Josu Elberdinekin. Ekitaldi honen barrenean maiatzaren 6an taiera burutuko da eta maiatzaren 20an kontzertua, biak Iruritan. Maiatzaren 13an helduen txanda izanen da. Kasu honetan, tailer berezia burutuko dute Elizondoko Josu Elberdinekin ere. Tailer horretarako dagoeneko 80 pertsonak baino gehiagok eman dute izena. Uztailaren 1ean izen handiko abesbatzaren bisita jasoko dute, Kea abesbatza hain zuzen ere. 75. urteurrenaren ospakizun potolena udazkenean burutuko dute, baina aitzinetik, udabukaeran zuzenean grabatutako diska aterako dute. Diska horren grabazioa iaz Azpilkuetan eta aurtan Berroetan burututako saioetan egin dute.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 6A EKITALDIZ GAINEZKA

Elizondoko Lanbide Eskolak 50. urteurrena ospatuko du

Kalejirak,
argazki
erakusketa,
bazkaria,
musika...
izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolak joan den urteko urriaren 13an 50 urte bete zituen eta egun horretan ospakizun xume bat egin zuen. Ikasurtean zehar ere zenbait ekitaldi egin dituzte eta oraingoan berriz, maiatzaren 6an egun osoko festa eder bat egiteko asmoetan daukete ikasle, langile eta irakasle ohi eta orain ari diren guztiak.

Larunbat honetan, 10:00etan txalaparta eta aurrekoa izanen dute eguna hasteko. Ondotik, kalejira joaldun eta txistulariekin. 11:30ean eskola irekiera egingen dute Baztango dantzariak. Argazki erakusketak eta bisita gidatuak ere izanen dituzte eskolan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Plano turistikoa berria argitaratu du Baztango Udalak

El Guardian Invisible filmak erakarrita gurera etortzen diren bisitarien jakinmina asetzeko, Baztango Udalak plano turistikoa berria argitaratu du. Plano honetan filma grabatu zen agertokiak ageri dira. Batetik, eta bereziki, Elizondoko filmatutako xokoak nabarmentzen dira, eta bertzetik, Baztanen zehar pantaila handira eraman ziren tokiak. Halaber, filmak erakusten dituen eskualdeko bertze lekuak ere ageri dira. *El Guardian Invisible* filmaren plano turistikoa Turismo Bulegoan banatzen zaie bisitariei eta Aste Saindu honetan arrakasta handia izan du; hortaz gainera, Baztango Udalak gonbidatzen ditu turismo edota ostalaritza sektorean aritzen diren baztandarrei turismo bulegora gerturatzerako planoak jasotzeko eta beren establezimenduetan banatu ahal izateko, hala nahi baldin badute.

12:00etan pilota partidak jokatu da eta 13:00etan Gaztelu abesbatzaren emanaldia.

14:30ean bazkaria izanen da eta ondoren bertsolariak eta trikitilariak ariko dira. 17:30etik

20:30era Oharkabe taldearekin dantzaldia izanen da. Egun osoan ostatua izanen da.

FLASH

'Cartoons in concert'

Elizondoko plazan

Elizondoko Recreo Musika bandak *Cartoons in concert* kontzertua eskainiko du maiatzaren 6an, larunbatean 19:30ean Elizondoko plazan. Euria egingen bazu, Francisco Joaquín Iriarte pilotalekuan egingen litzateke.

Baztango XVIII. mendeko etxe eta pertsonaiei buruz hitzaldia

Kasino Elkarteak eta Etnografia Museoaren Elkarteak antolatuta, Baztango Haraneko historiari buruzko hitzaldi zikloaren baitan *Etxe eta pertsonaia baztandarrak XVIII. mendeko Nafarroan* solasaldia eskainiko du Jose Maria Imizcoz Beunzak maiatzaren 12an, ortziralean 20:00etan Elizondoko Kasinoko ekitaldi aretoan. Sarreran borondatez ematen dena Xauli elkartearen alde izanen dela ohartarazi dute.

Eraso sexistei buruzko tailerrak

Eraso sexistak: identifikazioa eta protokoloaren lanketa tailerrak antolatu ditu Baztango Bilgune Feministak, Baztango Udalaren laguntzarekin. Maiatzaren 5ean Berroetako elkarteak eta maiatzaren 12an Arizkungo medikuarekin etxean egingen dituzte, 19:00etatik 21:00etara. Izen emateko, ba2feminista@baztan.eus helbide elektronikora edo whatsapp edo mezua bidali 650729639 telefonora (maiatzaren 8a baino lehen Arizkuneri).

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesak

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

GIZARTEA → EKAINAREN 2RA ARTE

Elizondoko bestetarako kartel lehiaketa abiatu da

Irabazleak 150 euro eta ziklorako bi txartel eskuratuko ditu

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Herriak bestetako kartel lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketa irekia izanen da eta nahi adina lan aurkezten ahal izanen dira. Ondoko testua agertu beharko da: *Santioak 2017 Elizondoko bestak, Uztailaren 24tik 28ra*. Ekainaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Kartelen neurria A3koa izanen da eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta horrekin batera, orri ba-

tean inprimatua. Euskarri digitalak lelo bat izanen du, eta lelo hori daraman gutunazal batean egilearen datuak idatzi beharko dira. Lanak Elizondoko Herriko Etxera bidali beharko dira ekainaren 2a baino lehen. *Elizondoko Herriko Etxea, Jaime Urrutia 4, 31700 Elizondo (Nafarroa)*.

Elizondoko Besta Batzordea izanen da epaimahaia eta ekainaren 9tik aitzinera jakinaraziko dute erabakia. Irabazleak 150 euro eta ziklorako bi txartel eskuratuko ditu. Abuztuaren 4tik aitzinera parte hartzaileek beren lanak berreskuratu ahal izanen dituzte antolatzaileekin harremanetan jarrit.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Bestak antolatzeko lehen urratsa eman dute Elizondon.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiurko eskolan Baztango esne ekoizleen alde

Danonek hartutako erabakiaren ostean, Baztango esne ekoizleen alde agertu dira Amaiurko ikasle, irakasle eta gurasoak. *Danone Baztango Esneak Mila Kolore, Entzun Gure Deia: Ez Utzi Gure Behia!* lelopean elkarretaratzea egin dute eskolan apirilaren 10ean. Danonek Nafarroako zenbait abeltzainen esnea jasotzeari utzi ondotik, ikasle batzuk beraien kezka agertu zuten. Honen ondorioz, pankarta bat sortzea proposatu zuten eta honekin batera elkarretaratzea egitea. Hauxe izan da emaitza!

MAIATZAREN 6AN LARRAINTZARREN

Errugby taldearen gaupasa larunbatean

TTIPI-TTAPA

BRT errugbi taldearen rugbyaren gaupasa hamalagarren urtez antolatu dute, maiatzaren 6an Larraintzarren (Ultzama). Inguruan errugbiaren kirol eskaintza mantentzeko behar beharrezko oinarri ekonomikoa da ospakizuna, antolakuntza zailtasunak eta eskakizunak areagotuz baitoaz urtez urte. Afari-rako txartelak salgai daude maiatzaren 3ra arte Baztango Kasinon, Ultzamako Larraintzarko Ostatuan, Doneztebeko Titin eta Iturengo Herriko Ostatuan.

Afaria eta bono-laguntzaren prezioa 25 eurokoa eta bono-laguntzarena 7 euro. Etxera (Doneztebe, Elizondo edo Iruñera) bueltatzeko autobusa ere izanen da. Txartela 3 eurotan eskuratzeko modua izanen da takillan.

Maiatzaren 6an, larunbatean 20:30ean karpa irekiko da Los Tajudos del Norte napar-mex taldearekin. 21:30ean ziklo afaria egingen da frontoian eta kantu zaharrak, sorpresak eta bertze zenbait ekintza



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Errugbia sendotzen segitu ahal izateko beharrezko da Ultzamako gaupasa.

izanen dira. 00:30ean Oharkabe taldea ariko da frontoian eta ondotik Dj Kaipirinha. Ordu berean, karpan Nekez eta Skarmentu taldeak ariko dira. Ondoren Djak izanen dira.

Divertis-en gastatzeko 300 euroko eta eskualdeko produktuen zozketa egingen da 02:30 aldera.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → BAZKARIA ETA ONDOTIK KONTZERTUAK PARAJE PAREGABEAN

Ilartasun Eguna bikaina izan da Ixtilarteko borda inguruan

Joseba B. Lenoir izan zen gonbidatu berezia

Josebiñe eta Koro

Lehen Ilar-jate eguna zena, Ilartasun eguna bihurtu zen, Herriko Etxean ikurrinaren kontura sortu zen arazoa-oren ondotik.

Aurten parte hartu zutenek ez dute berehalakoan ahantziko, toki eta giroa bereziak izan baitira. Madaria auzoko Ixtilarteko bordan egin zen bazkaria, eta kontzertuak berriz, toki ireki batean: hantxe harri tartean dagoen paraje zoragarri batean barra eta eszenatokia muntatu zituzten, eta giro arras polita sortu zen.

Kontzertuetarako inguruko musikariei parte hartzeko gonbitea egiten zaie (adibidez, gan den urtean Joseba Irazoki izan genuen). Aurtengoan gonbidatu berezia Joseba B. Lenoir izan da, eta bera-ekin batera oholta gai-

nean bertze hauek ere aritu ziren: Prbrtsiuk, Tumatxeroak, Ruper Ordorika, eta Hamaika aldiz.

Sutea

Berriz ere suteen mardikazioa bisitan izan dugu: apirilaren 8ko gauean, Atxuriako magalean, (Ibainetako aldean) sortu zen. Iparraldeko aldetik hurbilena zenez, Senpereko suhiltzaileak aritu ziren lanean. Kalteak ez dira haundiak izan, zorionez, toki hortan ez baita apenas arbolarik.

Aste Saindua

Espero zen bezala, aurtengo Aste Sainduak jendez gaindizki bete du herria. Azkeneko urteetan izan den mar-txa segitu da: aitzineko urteko marka gaindituz. Egun azkarrena ortzira-lea izan genuen, lezean 3.311 lagun sartu baitziren, eta Aste Saindu osoan 10.000 lagunek bisitatu dute herria.

Museora jende guttiago sartzen da usa-



ARGAZKIAK: JOSEBINE ETA KORO

Ilartasun Egunean, entzuleak adi Ixtilarteko borda inguruan.

ian (herena, guti gora-behera), eta egun haue-

tan 3.030 lagun sartu ziren. Hala ere, museo bat

izateko jendeketa haundia da hori.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO
 T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

Landibar
 tabac, prec a pos, restaurant, super, tabac, cadeaux, maroquinerie

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 13AN, HERRI URRATS BEZPERAN

Kontzertu handiekin Urrats Gaia antolatu du aurten ere Gaztetxeak

New House, Relax et Telmo Trenor, Kuartz eta La fin de la société taldeek joko dute

Joana GERENDIAIN

Herri Urrats bezpera guziz bezala Gaztetxeak urrats gaia antolatzen du. Gaueko 10etan, Garaziko New House taldeak gaualdiaren hasiera emanen du, ondorengo Gipuzkoako Relax et Telmo Trenor, Garaziko Kuartz taldea, Baionako La fin de la société taldeak entzuten ahaliko dira. Bukatzeko Baionako Dizeus DJak giroa ematen segituko du goiz sentia arte. Sartzea 5 eurotan izanen da.

Biharamunean, Seaskaren aldeko besta haundia izanen da Senperekoin aintziran.

Kantaldia

Maiatzaren 18an, ostegun gauarekin 9etan, Sarako Erlauntza abes-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Erlauntza abesbatza, duela urte batzuk egindako emanaldi batean.

batzak kantaldi bat emanen du elizan. Sartzea 5 eurotan da, urrik 15 urtez azpikoentzat. Xehetasun gehiagorentzat eta erreserbatzeko, turismo bulegoarekin harremanetan sartu behar da, 05.59.54.20.14 zenbakira deituz.

Sara VTT

Heldu den maiatzaren 21ean, Olhain ikastolak VTT ibiladi bat antolatzen du. Bi ibilaldi

proposatuak dira bat 26 kilometrokoa eta bestea 35 kilometrokoa, ibilaldian zehar jateko eta edateko puntuak izanen dira.

Izen-emateak egunean berean egingen dira goizeko 7:30etik goiti, 5 euroko parte hartze batekin, abiatzeak 8:30etik goiti egingen dira. Kaskoa beharrezkoa da eta haurrek ibilaldia heldu batekin egin behar dute. Informazio

gehiagorentzat <http://saravtt.jimdo.com>

Hauteskundeak

Apirilaren 23an, Frantziako lehendakariaren lehen itzuliarentzat, saratar frango joan da bozkatzera. Parte hartzea: 2031 inskribatuen gain 1587 pertsonen boza eman dute. François Fillon atera da buru 373 bozekin, ondorengo Macron 298 bozekin, Mélenchon 236 bo-

zekin eta Lasalle 225 bozekin. Baina Frantziako orokorrean, Macronen Martxan mugimenduak eta Marine Le Penen Fronte Nazionalak lortu dute maiatzaren 7an egingen den bigarren itzulira pasatzea eta bi horien arteko hautua bakarrik egin daiteke igandean.

Maiatzaren 7a

Igande horretan ekitaldi frango izanen dira Saran. Hasteko Sara oinez mendi ibilaldia iraganen da eta izenemateak egunean berean egingen dira plazan goizeko 6:30etik goiti. Goizeko 9etatik goiti, eskola publikoko gurasoek pastizak salduko dituzte plazan. 10:30ean igerilekuko frontoian erreboten partida bat jokatuko dute Donibane Lohitzune eta Zubietako taldeek. Informazio gehiago jaso eta erreserbak egiteko Ipar Euskal Herriko Euskal Pilotari Batzordearekin harremanetan sartu behar da.

tanatorios
IRACHE
24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
TXOTX GARAJA IREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

ARMUA JATETXEA
T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3 km
URDAZUBI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.eus

BAZTAN-BIDASOALDEA

GIZARTEA → ESKUALDEKO ZERBITZUEK ETA GIZARTE ZERBITZUEK SUSTATUA

Helduentzat DBH titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute aurten ere

Maiatzaren 5era arte zabalik dago izen-emateko epea

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Malerreka eta Bortzirietako Mankomunitateak, Gizarte Zerbitzuen bitartez, zonaldeko institutuekin eta Cerderna Garalurrekin elkarlanean, eskualdeko helduentzako irakas-kuntza programa publikoa eta doakoa indarrean jartzea lortu zuten 2015ean. Lehen ikasturtean 8-10 lagunek izena eman zuten eta 2016-17 ikasturtean 20 bat lagunek lortu dute DBHko titulua. 2017-18 ikasturterako izen-emateko epea apirilaren 24tik maiatzaren 5era irekiko da.

Matrikulazio kanpainaren berri emateko agerraldia egin zuten apirilaren 20an Malerreka Mankomunitatean. Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi, Bortzirietako eta Malerreka GIZARTE Zerbitzuen ordezkari, Laura Andresena, Itziar Iguzkiagirre eta Begoña Alberro izan ziren eta udal ordezkari gisa, Marga Erdozain eta Juan Kruz Iriarte, Doneztebe eta Baztango zinegotziak eta Josu Iratzoki, Berako alkatea.

Nafarroako hainbat eskualdetan indarrean zegoen helduentzako irakas-kuntza zerbitzua,



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi, Malerreka eta Bortzirietako gizarte langileak eta udal ordezkariak, aurkezpenean.

eta Baztan-Bidasoaldean, berriz, 2015. urtera bitarte ez. «Huts handia sumatzen genuen, ikasketak bukatu gabe utzi zituenak aukerarik ez baitzuen ordura arte inguruan ikasketak bukatzeko», aipatu zuten.

IKASKETAK AKITZEKO AUKERA

Zerbitzu honekin eskualdean bertan, aukera eman nahi izan die bere garaian ikasketak akitu gabe utzi zituzten herritarrei. 18 urtetik goitiko herritarrei oinarritzko ikasketak eskaintzea da helburu; doakoa eta hezkuntza sare publikoaren bitartez. Parte-hartzaileek Bigarren Hezkuntzako titulazioa eskuratzeko aukera izan dute eta izanen dute hurrengo ikasturtean ere. Irailetik ekainera izaten dira ikastaroak eta lau hilabeteko

lau modulo osatzen dituzte, bi ikasturtetan titulua ateratzeko.

Beraz, bere garaian ikasketak bukatu gabe utzi zituzten herritar guztiei dei egiten diete 2017-2018ko ikasturtean ere DBHko titulua eskuratzeko taldean izena ematera, apirilaren 24tik maiatzaren 5era arte epea zabalik dago eta Lekarozko institutuko bulegoetara deituz egin daiteke. Telefonoa 948581803 da eta ordutegia, astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 15:00etara eta asteartean 18:00ak arte.

Honen inguruko informazio zehatzagoa eskuratu nahi izanez gero edo zalantza bat argitu, Gizarte Zerbitzuetara deitu behar da (Mallerrekan, 948451746; Baztanen, 948580006; Bortzirietan, 948635036).

LANBIDE HEZIKETAKO ZENTRU BERRIA

Donezteben, Narbarten edo Oronozen jartzea aztertzen

TTIPI-TTAPA

Eskualderako Lanbide Heziketa Zentru berriaren inguruan, Hezkuntza Departamentuarekin batera egiten ari diren lan handiaren berri ere eman zuten Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udal ordezkariak: «Eskualdeko 27 udal ari gara lanean, lan batzorde batean. Eskualde erditsuan balizko hiru kokaleku aztertutako ditugu, teknikoekin batera, Donezteben, Narbarten eta Oronozen. Udarako proiektu pedagogikoa ezagutzera emanen dutela aipatua dute Hezkuntza Departamentutik eta gero erabaki beharko da non kokatu zentroa. Eraikuntza lanak 2019an hastea aurreikusia dago. Zentru berri horrek hartuko luke eskualdeko Lanbide Heziketako eskaintza guztia, eta, hortaz, Berako Toki Onan eta Lekarozen DBH bakarrik emanen litzateke. Elizondoko Lanbide Eskolan, datorren ikasturtari begira bi ziklo berri eskainiko dituzte eta hori albiste ona dela ere aipatu zuten, «zentru berria egin baino lehen ere, gure inguruko Lanbide Heziketako formakuntza eskaintza zabaldu nahi dutela adierazten baitu».

Gaur egungo Lanbide Heziketa eskaintza zabalatzeko baliagarria izanen litzateke zentru berria, beraz zenbait adar emateko aukera eskaintzen baitu.

EZKONTZAK


Jose Luis Rodriguez Granja eta **Irene Lopez Barrachina**, Lesaka eta Sabadell-koa, apirilaren 8an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

SORTZEAK

Udane Etxandi Gutierrez, Iruritakoa, apirilaren 13an.

Oskia Telletxea Morante, Lesakakoa, apirilaren 7an.

Noa Sanchez Mutuberria, Doneztebekoa, apirilaren 9an.

Nahiane Ramos Almandoz, Doneztebekoa, apirilaren 11n.

Xuban Mendikoa Maia, Etxalarkoa, apirilaren 11n.

Amalur Iturbide Olazabal, Igantzikoa, apirilaren 12an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jose Mari Ariztegi Berroeta, Etxalarkoa, apirilaren 10ean, 86 urte.

Xebita Susperregi Etxepeteleku, Lesakakoa, apirilaren 11n, 64 urte.

Tomas Ekioiz Arratxe, Lekarazkoa, apirilaren 11n, 88 urte.

Andres Lasarte Otermin, Leitzakoa, apirilaren 12an, 89 urte.

Amaia Irisarri Goienetxe, Elgorriagakoa, apirilaren 12an, 45 urte.

Esteban Jauregi Sanzberro, Almandozkoa, apirilaren 13an, 87 urte.

Bernardo Rekalde Barrenetxe, Amaiurkoa, apirilaren 15ean, 90 urte.

Pakita Otxoteko Almandoz, Berakoa, apirilaren 16an, 90 urte.

Gabriel Orquin Maisterrena, Zigakoa, apirilaren 19an, 77 urte.

Jose Mari Irigoien Goia, Berakoa, apirilaren 22an, 51 urte.

Itziar Viguera Ixurko, Leitzakoa, apirilaren 23an, 54 urte.

Jose Luis Zubiria Apeztegia, Lesakakoa, apirilaren 23an, 74 urte.

Mateo Mendiburu Gortari, Elizondokoa, apirilaren 24an, 76 urte.

Joseps Larçabal, Sarakoa, apirilaren 13an, 84 urte.

Badira jada zortzi urte
joan zinela gure artetik
Baina eguna joan eta eguna etorri
zure irudia dugu buruan sarturik
zaila da egunero aurrera egitea
eduki gabe begian malkorik
jakin ezazu denak gaudela
zurekin ezin ahazturik

**Jose Ma^a
Baleztena Monaco**

Leitza, 2009ko apirilaren 29an

VIII. URTEURRENA



**Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA**


1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

XV. URTEURRENA

Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak
egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

MENDI LASTERKETAK → APIRILAREN 23AN BIGARREN EDIZIOA

Xuban Ezeiza eta Laura Sola nagusitu dira Arantzán

Joseba Larralde eta Jone Zelaieta beratarrak izan ziren lehen bortziritarrak Ekaitzako kaxkoan

TTIPI-TTAPA

Urnietako Xuban Ezeiza nagusitu zen igandean Ekaitza elkar-teak eta Arantzako Udalak bigarren aldiz antolatutako Arantzako Mendi Lasterketan. 20 kilometro luze eta 1.300 metroko desnibel gogorreko ibilbidea egiteko, ordubete, 42 minutu eta 53 segundo behar izan zituen. Iazko irabazlea, Berako Joseba Larralde izan zen bigarren zortzi segundo (1:43:01) eta Iñaki Mihura baztandarra hiru-garren (1:45:42). Emakumezkoetan Ustarro-tzeko Laura Sola nagusitu zen (1:58:19). Vanessa Peláez andoaindarra izan zen bigarren (2:09:10) eta Galarko Izaskun Sanz hirugarren (2:24:30). Denera, 201 korrikalari helmugaratu ziren (horietatik 14 emakume) Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako puntuagarria zen lasterketan.

Gizonezkoetan, hamar lehenbizikoetan eskualdeko gehiago ere izan ziren. Asier Apezte-xea arantzarra bosgarren izan zen (1:47:26), Fernando Etxegarai beratarra seigarren



(1:48:37), Dani Iparra-girre arantzarra zazpi-garren (1:49:24), Mikel Altadill leiztarra zortzi-garren (1:50:45), Imanol Lukanbio arantzarra hamalagarren (1:54:54), Gorka Bermejo leiztarra hemezortzigarren (1:56:29) eta Agoitz Altzugarai lesakarra hogeigarren (1:56:52).

Emakumezkoetan, Jone Zelaieta beratarra bosgarren izan zen (2:34:15) eta Begoña Aroztegi baztandarra hamalagarren (3:11:48).

Gizonezko nahiz emakumezkoetan, hiru lehenbizikoek 120 euro eta txapela, 80 euro eta

50 euro eskuratu zituzten. Ekaitzako ton-torretik pasatzen ziren lehenbiziko korrikalari bortziritarrei Xabier Zubieta saria ere eman zitzaizen, duela 10 urte mendian hildako herriko mendigoizalearen omenez. Joseba Larralde eta Jone Zelaieta beratarrek jaso zuten saria, Aimar eta Lorea Zubieta Larretxea, Xabier Zubietaren seme-alaben eskutik. Txapel-dunen sariak ere beraiek banatu zituzten, txapel-dunordeenak Julen Oskoz Ekaitza elkarteko lehendakariak eta hirugarrena Igor Ugalde udal zinegotziak.

ESKUALDEKOAK

2	Joseba Larralde-Bera
3	Iñaki Mihura-Baztan
5	Asier Apezte-xea-Arantza
6	Fernando Etxegarai-Bera
7	Daniel Iparragirre-Arantza
8	Mikel Altadill-Leitza
14	Imanol Lukanbio-Arantza
18	Gorka Bermejo-Leitza
20	Agoitz Altzugarai-Lesaka
21	Julio Cesar Asto-Lesaka
30	M. Angel Iñarra-Baztan
32	Xabier Telletxea-Donetz.
38	Mikel Urtxegi-Igantzi
40	Daniel Parraga-Leitza
44	Ina Lasaga-Bera
57	Dani Etxeberria-Baztan
61	Xabier Iturria-Arantza
62	Andoni Garbisu-Sara
67	Mikel Inda-Bera
70	Unai Elizagoien-Bera
75	Ugaitz Ado-Bera
78	Joxe Iturzaeta-Baztan
81	Xanti Lertxundi-Baztan
85	JM Indakoetxea-Lesaka
90	Aitor Artola-Leitza
95	Txus Unsion-Bera
101	Jagoba Ramos-Baztan
110	Josu Juanena-Donetz.
112	Imanol Goñi-Baztan
113	Andoni Lasaga-Etxalar
128	Xabier Portu-Lesaka
133	Iñaki Zelaieta-Bertizarena
137	Gotzon Arenas-Arantza
138	Jone Zelaieta-Bera
139	Iñaki Pikabea-Bera
147	Mikel Larregi-Elizondo
152	Julen Larregi-Elizondo
153	Miguel Olano-Leitza
154	Alex Salaberria-Goizueta
155	Zigor Sagardui-Goizueta
159	Mikel Saenz-Leitza
169	Manuel Gouraud-Bera
181	Mikel Azpiroz-Leitza
197	Begoña Aroztegi-Baztan



ARGAZKIAK: MANTTALÉ

Jone Zelaieta eta Joseba Larralde, Xabier Zubietaren seme-alaben eskutik saria jasotzen. Goitian, podiumak.

MENDI LASTERKETA → EKAINAREN 18AN

Berroeta-Saioa mendi lasterketa antolatu dute lehen aldiz


16,5 kilometro luze eta 1.420 metroko desnibela duen ibilbidea

TTIPI-TTAPA

Berroeta-Abartan-Saioa mendi lasterketa antolatu du lehen aldiz Berroetako herriak, Baztango Udalaren eta Basaburua Kirol Taldearen laguntzaz ekainaren 18an. Izena emateko epea apirilaren 20tik

ekainaren 5era ireki da.

Egun horretan goizeko 8etan hasiko dira dortsalak banatzen eta 9etan izanen da irteera. 16,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak, Berroeta inguratzen duten mendietan. Lasterketak 1.420 metroko desnibela izanen du eta Berroetako plazatik abiatuta (370 metro), Abartan baina (1.099 metro), Baztango mendirik garaienean, Saioan (1.419 metro) izanen du helmuga. Kontutan har-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztanen lehen aldiz antolatu dute gisa honetako mendi lasterketa.

tu behar da lasterketatik kanpo, helmugatik 8 kilometroko itzulera egin beharko dutela korrikalariak eta baita Saioaraino hurbiltzen diren ikusleek ere.

Gehienez 300 korrikalariak parte hartu dezakete. Inskripzioa internet bidez soilik eginen da, berroetasaioa.wordpress.com eta www.herrikrosa.eus webguneetan, ekainaren 5era arte. Ondotik

ez da inskripziorik onartuko.

20 euro izanen da inskripzioa federatuentzako eta 22 euro federatuta ez daudenentzako. Ordainketa honen eskubidea ematen du proban parte hartzeko, erantzunkizun zibila eta istripuetarako aseguruia izateko eta antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko. Lasterkariak bakarrik izanen dute

luntxa eta zozketan parte hartzeko eskubidea.

Ibilbidea behar bezala seinalatuta egonen da, kartel adierazleekin eta ageriko balizaje-zintekin. Kilometro-erreferentziak ibilbide osoan jarriko dira eta sei hornidura postu jarriko dira helmugakoaz gain (3 likido/solido eta 3 likido). Lasterketa akitutakoan luntx bat izanen da parte-hartzaile guztientzat.

DUATLOIA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Erreka Tri taldea azpitxapeldun izan da taldeka

Hiru talde aurkeztu zituen apirilaren 8an Sarrigurenen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako duatloi txapelketan parte hartu zuen Erreka Tri taldeak apirilaren 8an Sarrigurenen. Denera hiru talde aurkeztu zituen Doneztebeko taldeak eta horietako bat txapel-

dunorde suertatu zen, Saltoki Triki taldearen gibeletik.

Zehazki, Erreka A taldeak lortu zuen bigarren postu hori. Santi an Miguel, Iñigo Arregi, Javier Magaña, Peio Lopez eta Alberto Barberenak (berriki bakarka txapeldun izandakoa) osatu zuten taldea eta ordubete, 49 minutu eta 6 segundo behar izan zituen proba burutzeko. Saltoki Triki talde txal-



ARGAZKIA: ERREKA TRI

Erreka Tri taldeko ordezkariak zabala izan zen Nafarroako duatloi txapelketan.

peldunak ordubete, 47 minutu eta 20 segundo behar izan zituen.

5 kilometro lasterka, 24 kilometro bizikleta eta azken bi kilometro eta erdi berriz ere lasterka egin behar izan zituzten. Talde bakoitzak gehienez 6 kirolari aur-

keztu behar zituen eta guttienez 4, eta helmugan, laugarrenaren denbora hartzen zen kontuan.

Erreka B taldean Endika Eugi, Migui Ezkurra, Gorka Bidegain, Xabier Bañares eta Jon Maritxalar aritu ziren eta

ordubete, 59 minutu eta 49 segundo behar izan zituen proba burutzeko. Erreka C taldean Andoni Blas, Aitor Bertiz, Ibai Ordax eta Mikel Telletxea aritu ziren eta bi ordu, 4 minutu eta 48 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

maiatzak 4 - 18

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Azokak



DONEZTEBE | 2017.05.05

Ahari lehiaketa,azienda erakusketa eta artisauen lanak Udaberriko Ferian

Malerrekako ahariarik onenak sarituko dituzte X. Ahari Lehiaketan eta horrez gain, herriko tratanteen azienda erakusketa izanen da. Eskulangileen erakusketa-salmenta ere antolatu dute.

Bestak



GOIZUETA | 2017.05.05-06

Ekitaldiz beteta dazoz Goizuetako Txino auzoko festak

Ostiral gauean bertso-saioa eta mus txapelketa izanen dituzte eta larunbatean egun osoko festa antolatu dute: haurren lasterketa, sokatira txapelketa, bazkaria, break-dance ikuskizuna, musika...

Kontzertuak



IGANTZI | 2017.05.06

Kontzertuak antolatu dituzte herriko gazteek eta Udalak

Juantxo Skalari & Rude Band iruindarrak, Willis Drummond baionarrak eta Koban donostiarrak gonbidatu dituzte. 22:00etan hasiko dira kontzertuak baina egunez Xabi Telletxea BTT proba izanen da.

Hitzaldiak

LESAKA

Fiare Banku Etikoaz

Maiatzaren 5ean 18:30ean
Matxinbeltzenezan.

ELIZONDO

'Etxe eta pertsonaia baztandarrak XVIII. mendeko Nafarroan'

Maiatzaren 12an Kasinon,
20:00etan.

BERA

'Dantzara Plazara'

Maiatzaren 11n Baztango
taldearen eskutik, Katakun.

'Wagner auziaz'

Maiatzaren 19an Hedoi
Etxarte Beralandetan (19:00).

LEITZA

Gure Esku Dagoren baitan

Maiatzaren 18an 19:00etan
Zineman.

ARESO

Bakartxo Anizen 'Piedras con alma' liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 12an 19:00etan
Udaletxean.

Erakusketak

BERA

Isidoro Fagoagaren ibilbidearen erakusketa

Maiatzaren 21era arte Kultur
Etxean.

Ikastaroak

ARANTZA

Haur eta gurasoentzako ikastaroa UEMAko teknikariekin

Maiatzaren 4an 15:00etatik
17:00etara eskolan.

BERROETA

'Eraso sexistak: identifikazioa eta protokoloaren lanketa'

Maiatzaren 5ean elkartean,
19:00etan.

IRURITA

Haur eta gazte kantariak Josu Elberdinekin

Maiatzaren 6an 10:00etatik
13:00etara Gizarte Bilgunean.

DONEZTEBE

Estresaren inguruan

Maiatzaren 9tik ekainaren
6ra. Apuntatzeko 948 281200
edo pamplona@cenforpre.net.

Jakoba Errekondorekin

Maiatzaren 6an herri bara-
tzeetan, 11:00etan, dohainik.

ARIZKUN

'Eraso sexistak: identifikazioa eta protokoloaren lanketa'

Maiatzaren 12an medikuaren
etxean, 19:00etan.

ELIZONDO

Kantugintzako tailerra

Maiatzaren 13an Josu Elber-
dinekin, helduentzat.

Kontzertuak

ERRATZU

Kaskezur taldea ZubiPuntan

Maiatzaren 19an 23:00etatik
aitzinerara.

BERA

Zimiko Punk jaialdia

Maiatzaren 6an Katakun Herri
Ostatuan 16:00etatik aitzine-
ra: El exterminio de la raza del
mono, Baserriko olaskuek la-
bien, Ostion, Txorroskilo, Ya-
kovlev42, Korkones, Holy
nuns eta T.a.d. taldeekin.

Occhi Di Farfalla eta Doble Capa taldeen kontzertuak

Maiatzaren 12an Katakun.

PROPOSAMENA

SENPERE

Herri Urrats besta maiatzaren 14an

(H)aizu! lelopean ospatuko dute heldu den maiatzaren 14an Senpereko aintziraren inguruan Herri Urrats besta. Haur, gazte eta helduek goza dezaten, gunez-gune egitarau zabala prestatu dute aurten ere Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko ospakizunean. Joan den urtean bezala, aurten bildutako etekinak Baionako Bernat Etxepare lizeoaren alde izanen dira.



Musika Eskolako en saioak

Musika Eskolan

Maiatzaren 15ean gitarra entzunaldia, 18:00etan.

Maiatzaren 16an haize-instrumentuen saioa (18:00).

Maiatzaren 19an trikitixa eta akordeoia, 18:00etan.

LEITZA

Institutuetako ikasleen saioa

Maiatzaren 4an 17:00etan frontoian.

Katez taldea

Maiatzaren 12an 23:00etan Atekabeltzen.

ELIZONDO

Elizondoko Recreo Musika Bandaren emanaldia

Maiatzaren 6an 19:30ean plazan.

IGANTZI

Kontzertuak dohainik

Maiatzaren 6an Juantxo Skalari & Rude Band, Willis Drummond eta Koban 22:00etatik aitzinera.

LESAKA

Txamukos taldearen bigarren diskoaren aurkezpena

Maiatzaren 13an Harriondoan, 19:00etan. Sarrera 6 eurotan.

SARA

Urrats gaua

Maiatzaren 13an New House, Relax et Telmo Trenor, Kuartz, La fin de la société eta Dizeus DJa 22:00etatik aitzinera Gaztetxean. Sartzea 5 eurotan.

Erlauntza abesbatza

Maiatzaren 18an 21:00etan elizan. Sartzea 5 eurotan, urririk 15 urtez azpikoentzat.

IRURITA

Haur eta gazte kantarien topaketa

Maiatzaren 20an 19:00etan elizan.

Nire aukera



Ainhoa ZABALETA IRIBARREN

Goizuetako gaztea

«Kontzertuetan lanean ari gara baina disfrutatuz aldi berean»

Neska alaia eta saltsera xamarra» dela esanez aurkeztu du bere burua hogeita bat urteko goizuetarrak. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari da Donostian eta afizioen inguruan galdetuta «musika eta bertsoak oso gustuko» dituela dio. Entzule bakarrik ez, oholtzara igotzeko pausoa ere emana du: «Gabezin berbera taldean aritzen naiz abeslari eta panderojole gisa». Nafarroako hainbat herritako kideek osatzen dute taldea, «Betelu, Gaintza, Goizueta, Iruñea, Atarrabiakoak... eta udaran herriz herri ibiltzen gara bazterrek alaitzen». Txikitatik du musikarako afizioa: «Aralar musika eskolan hasi nintzen pianoa eta gitarra jotzen eta musika eskolak antolatzen zituen herriarteko kontzertu horietako batean eza-gutu nituen gaur egun nire taldekideak direnak». Hamahiru urterekin hasi zen Gabezin taldean abeslari gisa eta horri esker, «Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu ditut». Batean eta bestean ibili ondotik, Goizuetako «lasaitasuna eta askatasuna» azpimarratu ditu: «Goizuetan txoko eder ugari dauzkagu. Bat esatekotan, Iberoko putzua bururatzen zait. Udan baina bat hartzeko eta bazkaritxo bat egiteko toki aproposa da». Eta ez hori bakarrik: «herriko jendearen gertutasuna eta umorea ere aipatuko nituzke». Festarako ere ez du zalan-tzarik, «parrandarik hoberenak nire herrian botatzen ditudala esango nuke. Herriarren artean daukagun giroa atsegin dut». Bada, maiatzeko lehenbiziko asteburuan izanen du gozatzeko aukera Txinoko festetan: «herriko festez aparte, bere festa propioak ospatzen dituen auzo bakarra da. Hala ere, herriko eragile ezberdinek hartzen dugu parte honen antolakuntzan». Festa hain hurbil izanda, ezin etxean gelditu, eta are gehiago familiako ohitura dela jakinda: «festa hauei hasiera nire osaba batek eman omen zien, duela 13 bat urte. Parrandero xamarra zen eta aitzakia ederra bilatu zuen...». Ainhoa irribarreia ezpainetan duela ibiliko da asteburuan «lagunak eta familia ondoan izanik, oso zoriontsu naiz. Eta gin tonic bat ondoan jartzen badidazu oraindik ere zoriontsuago». Eta ez bata eta ezta bestea ere ez zaizkio faltako Txinoko festetan.

«Goizueta paisaia aldetik zoragarria izateaz gain, herriko jendearen gertutasuna eta umorea ere aipatuko nituzke».

Ospakizunak

LARRAINTZAR

Errugbiaren gaupasa

Maiatzaren 6an.

BERA

Isidoro Fagoagari omenaldia

Maiatzaren 6an Illekuetako Agramontea etxean (12:30).

SENPERE

Herri Urrats

Maiatzaren 14an.

ARESO

Gure Esku Dago besta

Maiatzaren 7an.

LEITZA

Gure Esku Dago besta

Maiatzaren 21ean.

Bestak

GOIZUETA

Txino auzoko festak

Maiatzaren 5ean eta 6an.

Azokak

DONEZTEBE

Udaberriko feria

Maiatzaren 5ean.

BERA

Bertako ekoizleen produktuak

Maiatzaren 13an Ricardo Baroja eskolan (10:00-13:30).

Kirol hitzorduak

IGANTZI

Xabi Telletxea BTT proba

Maiatzaren 6an 15:00etan.

BER

Felix Errandonea Memoriala

Maiatzaren 6an, 17:00etan

SARA

Mendi itzulia

Maiatzaren 7an 07:00etan.

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldia

Maiatzaren 7an Ardanaztik Izaga Peñara, 07:30ean.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalera. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

SUNBILLA. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

LESAKA. Pisua salgai Antoiu karrikan. 4 logela, sukaldea, hall ederra, komuna, egongela handia, despentsa eta trasteleku ederra. Sartzeko prest eta mobleztatua. ☎620 700964.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@titi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ETXALAR. Larrapil Sarriku auzoan etxe bat errentan emateko. Herriko bista zoragarriak eskaintzen dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handiarekin. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 672 153196.



BERA. Bidasoa karrikan 5. zenbakian pisua errentan emateko. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta jangelarekin. Igogailua. Garajeko bi marrarekin eta bi trastelekurekin. ☎680 549808.

LESAKA. Pisua errentan emateko Bittiria karrikan 18an. Laugarren solairua igogailuarekin. 4 gela, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎626 500459.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartu nahi da. ☎630 432695 / 618 936395.

BERA. 3 edo 4 gelako etxebizitza hartuko genuke errentan. ☎653 703623 / 658 741180.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. 93 m²ko bajera salgai, Koskontako Bidea 11n. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LESAKA. 48 m²ko bajera salgai edo errentan emateko, Koskontako Bidea 3. zenbakian, beheko solairua 6. Alarma sis-

temarekin, pertsiana elektrikoarekin eta bi komunekin. Bulegoa izateko prestatua. ☎609 445769.

DONEZTEBE. Ameztia karrikan lokal komertziala salgai. 98 m², azulejatua eta bainugelarekin. Erakusleho handia eta argitsua. ☎606 585163.

BERA. 31m²ko garaje itxia saldu edo errentan emateko. Bidasoa karrikan, Telefonika ondoan. ☎617 902118.

LURRAK/ORUBEAK
erosi

OIZ. Herri inguruan lur saila erosi edo errentan hartuko nuke. ☎655 705506.

LANA**eskaintzak**

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komer-

tzialak, autonomoak edo bertze langileak behar dira. ☎699 382673.

ZUGARRAMURDI. Gaxiana jatetxean sukaldaria behar da urte osoan lan egiteko. ☎675 711498.

Garbiketari ari eta bertze lanetan laguntzeko **emakume bila Baztanen** (pertsonek heldua bada hobe), asteburuetan aritzeko. Ez da ezinbertzekoa euskaraz jakitea baina euskararekiko onarpena eta errespetu erabatekoa bai. ☎633 621982 (whatsapp).

BERA. Ibardin zerbitzaria behar da uztail erdialdetik irailera arte lan egiteko. Esperientzia duena eta frantsesez dakiena. ☎948 630311.

URRUÑA. Col d'Ibardin kanpinean, sukaldaria behar da maiatzetik urrira arte jatetxean lan egiteko. Guttienetz frantsesa ulertzea eskatzen da. *michel@col-ibardin.com*. ☎(0033) 607 729877.

BORTZIRIAK-MALE-REKA. Fruta-denda batean lan egiteko jendea behar da. ☎647 254263.

BERA. Jatetxe batean asteburuetan aritzeko zerbitzaria behar da. ☎607 827309.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar da. ☎948 630392.

BAZTAN. Jatetxe batean, barran eta pintxo-bokatak prestatzen espe-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(apirilaren 14tik 21era bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 67 €

Zerri gizena
1,355 € kiloak.

Zerramak:
0,820 € Kg/bizirik.



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,32
1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20

BERAKO TAILERRAK
AIXAM CROSSLINE. Karmelik gabekoa.
DIESEL
VW Touran. 1900 TDI. Klimatizagailua. Aluminizko lantak. 12 urte. Hagitz ongi.
DIESEL
N-121-A errepeidea 63 km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

rientzia duen zerbitzaria behar dugu. Euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar du eta frantsesez jakitea baloratuko da. Bidali curriculum: hr_bztn@yahoo.com.

BAZTAN. Jatetxe batean ostalaritzako ikasketak dituen sukaldaria behar dugu, guttienez 2 urteko esperientzia duena eta berehala lanean hasiteko. Bidali curriculum: hr_bztn@yahoo.com.

IRUÑEA. Neska bat behar da gozotegi batean lan egiteko. ☎948 220618.

LANA eskariak

Doneztebeko emakumezko bat lan bila: haurrak zaintzen, garbiketari: etxeak, dendak, kafetegiak... Arduratsua. ☎619 913375.

Gizonezkoa zonaldea lan bila. Pintura lanetan, abeltzaintzan edota adinekoak zaintzen esperientziaduna eta lan hauetan edo besteren batean interesatua. Ikasteko gaitasunarekin eta ardura tsua. ☎638 433871.

ZERBITZUAK psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

MOTORRAK salgai

Volkswagen California Coach T4 salgai. 2.5 TDI 5 zilindroak 102 cv. Nazionala. 335.000 KM. Oso ongi zaindua, beti garajejan. Extra asko: portabizikleta, toldoa, *avance* tunela, kalefakzio estatikoa, konbertidorea... ☎630 041480.



Leon FR 2.0 TDI autoa salgai. 2014ko ekainekoa. Extra ugari, 5 atekoa, aurreko gurpilak aldatu berriak eta 4 urte edo 80.000 km bitarte etxeko garantiarekin. 50.000 km eta jabe bakarra. ☎620 700964.



Volkswagen Touran autoa salgai, 140 cv eta 2012. urtekoa. 87.900 km. Extra aunitzekin. Oso egoera onean. Prezioa: 16.800 euro. ☎607 924379 / 670 303520.



BERA. Audi A3 TDI 105 cv salgai. Barruko ekipazioa larruzkoa, berogailua eserlekuetan. Oso egoera onean. 217.000 km. ☎661 846548.



Peugeot 207 1.6 HDI sport autoa salgai. 90 cv. Egoera oso onean. 2011 urtekoa. 155.000 km, 120.000 km-tan korrea eta kit osoa aldatuta. Extra ugariekin. Prezioa: 5.990 euro. ☎665 731414.



BMW-F 650 GS moto-rra salgai. 2001ekoa, 652 cc eta 17.999 km. IAT-ITV 2018ra arte. Garajejan dagoena. Bi kaskoren tzako atzeko maleta barne. Olio filtroak eta atzeko gurpila berriak. 3.000 euro. ☎659 215879 / 948 456079.



ANIMALIAK oparitzeko

OIZ. Zakurrak oparitzeko. ☎674 414645.



ANIMALIAK salgai

Behi suiza salgai, 3 urte eta erdikoa. 8 hilabetez ernari. Txahala mestizoa. ☎634 452735.

Zezena salgai, piriniar arrazakoa. ☎630 184847.

Ahuntz azpigorriak salgai. ☎617 723475.

DENETARIK salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobilduna rekin. ☎948 585036.

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

744 484 361
ttipi-ttapa

ORONAZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritz. Etxera eramane da. ☎676 242520.



ERATSUN. Ardi parrilak salgai, 80 m² (2,50 x 0,50). Burdinezko sarea eta abar. Prezio onean. ☎616 325546.



SANTESTEBAN TAILERRAK
KADJAR ZEN DCI 130 CV
Estreinatua gabea
SCENIC SELECTION DCI 110 CV
2016. urtekoa - 15.000 km.
CAPTUR ZEN TCE 90 CV
2016. urtekoa - 8.000 km.
ESPACE 1.9 DCI 120 CV
7 plazakoa. 2005. urtekoa. 171.300 km.
Leitzako errepeidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎653 011145.

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

Bigarren eskuko **panelezko hotz kamara indus-triala** salgai bere motor eta kontrol elektronikorekin. 1,5 m zabal x 1,2 m luze x 2,5 m altuera. 1.980 euro instalazioa barne. ☎619 248192.



hemen agertu nahi duzu?
egin zure erosketa erran.eus en
IRAGARKIA
2 aldizkaritan interneten
10 EURO

PLAZAN BAZAN

Kaixo Lagunak! zer moduz zaudete?

MARIPURTZIL

PELLOZIRI

HAU GOSEA!

Ezagutzen al duzu Herri Urratseko paella ospetsua? Sarako ikastolakoek zerbitzatzen dute eta 600 lagun inguruk jaten dute bertatik. Aurtengo sukaldaria despistatu xamarra da eta hainbat gauza galdu ditu lanean ari zela



BILATU:



Zenbat pegatina ikusten difuzio?

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

INTERNETEN ERE BAI !



plazanbazan.eus

KIOSKOA - JOLAS-PARKER
AZOKA - UDALETXEA - IKUSKIZUNAK
IPUINAK - KOMIKIAK - MARRAZKIAK



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

PAREAK BAI!

Arriskutsuak ala onuragarriak izan, benetan xelebreak dira mikrobio guztiak. Forma harrigarri eta bitxiak erakusten dituzte. Goiko irudian aurkitu bikoterik osatzen ez duen 'xomorrotxo'.



Marraztu eta margotu bakterio zintzo bat.

Marraztu eta margotu birus gaizto bat.

EZETZ ASMATU

Osatu esaera zaharra



ZOZOAK BELEARI

PUBLIZITATEA

GLOBAL
language school

INGELES KANPALDIK UZTAILEAN

Kanttonberri, 6 • BERA • T. 948 63 16 16 • 625 683 529
info@globalschool.es • www.globalschool.es



Find the words

- Global
- Summer
- English
- Camp
- Swimming
- Pool
- Party
- Games
- July
- Sports
- Olympics
- Fun

S	E	n	g	l	i	s	h
f	h	x	l	o	h	F	b
G	l	o	b	a	l	u	N
j	v	k	c	v	a	n	d
a	S	u	m	m	e	r	a
S	w	i	m	m	i	n	g
p	M	z	u	i	P	a	e
o	P	o	o	l	a	d	N
r	a	L	y	a	r	v	G
t	J	u	l	y	t	L	a
s	T	a	s	q	y	c	m
d	C	a	m	p	d	a	e
O	l	y	m	p	i	c	s

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



JUNEK urtea bete du apirilaren 14an. Zorionak prexioa eta marrubizko muxu haundi bat Aresotik Berastegiraino.



Apirilaren 6an Igantziko **XUBAN BEREAU** TXOPERENAK 3 urte bete zituen. Muxu haundi bat Galder, ama, atta eta familia guztiaren partetik. Eskerrik asko prestatu zenigun tartagatik!!



JUNE LABORRA ELIZEGIK maiatzaren 12an 6 urte beteko ditu, eta **MADDI LABORRA ELIZEGIK** ekainaren 4an 4 urte. Ongi-ongi pasatu eta ea bizkotxo goxo-goxoa prestatzen duzuen. Muxu potolo bana familia guztiaren partetik!



Aresoko **IRAIK** 3 urte beteko ditu maiatzaren 14an. Zorionak eta ondo pasa! Tira gogor kainaberari! Baietz aitaren markak hautsi!



ENEA ZUBILAGA URRETAK 5 urte bete ditu apirilaren 23an. Zorionak Loidiko felixia-nari! Ezpainak margotu tori bost muxu!



ELORRI eta **AIERT AROTZENA PORTU** lesakarre 6 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Seina muxu haundi familia osoaren partetik.



Zorionak **BITXITO PAREA**, hainbertze maite zaituzten Orti eta Lexuri anal-arreben partetik.



GARAZI BARANDARAIN ARANALDEK bi urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak pottoki! Etorri nahi duzunean Aresora ttakattan-ttakattan ibiltzera! Txokolatezko bi muxu!



Doneztebeko **AINHIZE ARNEO MITXELENA** ebeko sorginboak 3 urte bete ditu! Aunitz urtez poltita! Muxu bat ebekoan eta berexiki Hegoi anaiaien partetik!



JOSEBA PETRIRENAK maiatzaren 2an 34 urte beteko ditu. Amaia... partetik zorionak!



ETXAHUN ZATO OLAETXAK 7 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak amaxi eta Berako eta Lesakako familiaren partetik. Muxu aunitz.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soilak 5 EURO
argazki bikoitzak 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zure gurasu zuri gurasu gurasu bati!!!

egin zure erosketa **erran.eus** en

Milaka telefono eskura!

BILATU ETA DEITU ZUZENEAN

erran.eus

- 1** Sakatu botoitxoa eta aukeratu **TELEFONO GIDA** zerrendan
- 2** Idatzi bilatu nahi duzuna * eta sakatu **BILATU** Emaitzetan sakatu **DEITU**
- 3** Sakatu

* Deiturak euskal grafiaz idatziak daude

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7-1 | 31770 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57 | publi@ttipi.eus | erran.eus



2017-2018

LANBIDE HEZIKETA **EUSKARAZ** **AURREMATRIKULAZIOA**

-2017ko Maiatzak 8-15-

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- TURISMOKO OSTATUEN KUDEAKETA (**Berria**)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- MEKANIZAZIOA
- ERIZAIN TZAKO ZAINKETA (**Berria**)

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- ELEMENTO MEKANIKOEN FABRIKAZIOA



LANBIDE HEZIKETA BEREZIA

Diputazio etorbidea, 7
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581805 Faxe: 948 581840
<http://ieselizondobhi.educacion.navarra.es>

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

684 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Martiko - Lote bat

Juana M^a Gortari Oteiza | ELIZONDO

Irrisarri Land - 2 sarrera

Jose Urrutia Azpiroz | LEKAROS

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Sabina Baleztena Albistur | BEINTZA-LABAIEN

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Amaia Zabaleta Erasun | LEITZA

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Josune Zapata Bernal | ARIZKUN

La Rhune - 2 sarrera

M^a Pilar Mindegia Iriarte | BERA

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Julian Azpiroz Bengoetxea | DONEZTEBE

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat

Begoña Olaetxea Iriarte | LEKUNBERRI

2 tiket

BAZTAN
ABENTURA PARK

ELIZONDO

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
SORGINEN LEZEA
SARRERA

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

AQUARIUM

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

Eureka!
Museoa+Planetario

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera helduentzat

BER TSO AK



- Gu ta gutarak
- Despedidea



www.lanku.eus

LA GUN TZAI LEAK

